

Arrasate

P R E S S

2000.eko
apirilak 7
481. zenb.

ZABORRA BAI, ESKERRIK ASKO



IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSE RAMON ELORZA
ORAIN ETA HEMEN: GOIENA • KULTURA ELKARRIZKETA: LUIS ELBERDIN



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozaten da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000

Nissan Primera Berria. Bete-betea autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uharteetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.



Klimatizagailu berria



GIDATU ETA GOZATU

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zigarrola kalea, 1 • Tel.: 943 71 20 02 • 20500 ARRASATE

Berriak = egiak?

Bartzelonako Poliziak prentsari "berriak" emateko ohitura omen du. Beste hainbat polizia talderen moduan. Baina oraingo honetan, Bartzelonako horrek emaniko berria gezurra suertatu da. Egun gutxitara konturatu omen zen kazetariren bat, eta egunkari batzuetan polizien portaera horri buruzko kritikak azaldu ere bai, kazetariak, berriak argitaratu baino lehen, "iturriak" ondo aztertu ez izanari...



Nekane San Migel

"Berri" hori gezur borobila zela diotsuet: "Skin-heads" talde batek emakume bati jipoi izugarria eman ondoren, ezin mugiturik geratu omen zela argitaratu zen. Ikerketa lanak hasi, eta ez zen emakumerik, ez zen jipoirik... "taldea"?... Bai, horrelako talde asko omen, eta arazoak sortarazten dituzte...

Gezur borobilari aurre egiteak zailtasun gutxi du: Ez da... ez dago ezer

Halakorik asmatzeko arrazioak? Niri bat baino gehiago bururatzen zait. Dena den, berri hau irakurri nuen egunkari berean, zera ere irakurri nuen hilabete batzuk direla: Bartzelonako Raval auzoan, ustez arazo larriak zituzten gaztetxoei laguntzeko aitzakiarekin, beste helburu lizunetarako gazte horiez baliatzen ziren hiruzpalau gizon atxilotu zituztela, eta hori ere ez omen zen egia.

Liburu bat atera du edo ateratzekotan da bigarren "berri" honen inguruan gertaturikoa azalduz... Gizon hauek auzibidean jartzeaz gain, kartzelan egon ziren, eta inguru honetan agintzen duen ohiturari jarraituz, hedabideetako kazetariak errudun aldarrikatu zituzten. Epairik gabe, noski... Lehenengo azaldu dizuedan "berria" indargabetzea erraza izan da, gezur borobilari aurre egiteak zailtasun gutxi du. Ez da...ez dago ezer. Baina

bestea?...izenak, pertsonak, familiak, harremanak, noski...eta harreman horien desitxuratzea. Horren aurka ezer gutxi egin daitekela jakiteak egonezina sortarazten du... Baina hori da gure eguneroko ogia kazetaritzaren munduan. Hedabideetan atera baino lehen (edo geuk zuzenean) ezagutzen dugun ezer argitaratuz gero, irakurri edo entzuterakoan, guk dakigunarekin, ikusi eta zuzenean entzun dugunarekin zerikusirik ez duela konturatzeko gara, eta haserretu, eta amorratu...eta inguruan dugun guztiei "hori ez da hola" esaten saiatzen gara...alperrik, zeren guk alde aurretik ezagutzen ez dugun "berri" bat irakurri edo entzuten dugunean, "hemen bada-kar..." esan, eta ederki irensten dugu...Lehendik ez genekielako?... zuzenean ezagutzen ez dugulako?... "akritikoak" garelako?... Bitartean, halakorik kazetariren bati esanez gero, berak "subjektibotasun ondraduz" egiten duela lana erantzuten dizu... eta berak egindakoa irakurtzerakoan, subjektiboa bai, baina "ondradutasun" hitzak, zuretzat eta beretzat esangura bera ez duela nabarmen uzten dizu. ■

"14-15 urterekin gazteek sexu-joko gehiago egiten dituzte. Euren gurasoek izan zutena baino sexualitate alaiagoa dute".

Luis Elberdin

333.949

kilo hondakin batu zen lbarretako hondakin alternatiboen edukiontzietan otsailean zehar.

Debagoieneko Mankomunitatearen datuak dira. Egurra, lanetako hondakinak, txatarra, kartoi-papera eta plastikoa batzen dira Garagartzan. Lanetako hondakinak bildu dira gehien: 76.000 kilo.

ITURRI ONETIK

San Lukasen ebanjelioa

Gipuzkoako gotzaitegiak Jubileoa dela eta, ekintza bereziak antolatu ditu aurtengo garizuman eta horietako bat San Lukas apostoluaren ebanjelioa banatzea izan da eliztarren artean. Jesusen bizitza kontatzen duen ebanjelioak Gipuzkoako hamabost artzapez-barrutietan banatu dira.

Arrasaten gaur bertan San Joan parrokiaren egin dute hori. Arratsaldeko 19:00etan elkartu dira parrokiaren 3.000-4.000 ale zituzten banatzeko gutxi gorabehera. Gipuzkoako osoan, berriaz, 55.000 ale banatu dira doan. Euskaraz zein gaztelaniaz argitaratu dira aleak.

Maiatzean berriaz, San Lukas apostoluaren bizitzaren bideoak banatuko dituzte, hauek ere, doan.

ARRO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administratzailea:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubuelo. **Astoburuak:** **Berriemakileria:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udako Gazteria Saria, Karmele Perez, Iker Ezpeleta, Nekane San Migel. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konzentratuta.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuarekin egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

Arasateko Udalaren laguntza **Gipuzkoako Foru Auzundaren laguntza** **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza**

MOZAMBIKETIK ELGEARA

“Lurra ez da gure arbasoek utzi diguten zerbait; gure ondorengoei hartzen diegun ondasun bat da”.

Honela dio Mozambiqueko esaera zahar batek eta gure-tako herri hori bezain urruti dago esaldi horrek gordetzen duen mezua. Gure ondorengoek ez dute jada guk ezagutu dugun Aumategigaina ton-torra ezagutuko, lapurte egin diegu. Dirudienez, “ezinbestekoa” zen Elgean argindarra sortzeko fabrika bat eraikitzea, eta horrela egin dute. Haizearen indarra oso ekologikoa da, baina mendiek, batek daki ze arrazoiengatik, aldapak izaten dituzte, eta hauek traba egiten dute. Horregatik, haize-errotak mendiaren itxurara egokitu beharrean, mendiak aldatu dituzte, haize-errotetara adaptatu daitezten. Horrela desagertu da Aumategigaina. Zeinek azalduko die hau hurrengo belaunaldiei?

Jende asko dago gertatutakoarekin ados ez dena, baina zer axola du horrek? Arduradunek kontzientziak garbi dituzte, haiek behar zituzten tramiteak bete zituzten, eta zeini axola dio alegazioak onartzen ez badituzte? Gauzak modu txukunean egiten direnaren itxura emateko “Jarraipen Batzordea” eratu eta kitto!

Berdin dio errealitatean naturaren aurkako erasoak pape-rean baino larriagoak badira, jabeak beraien lurretan gertatzen denaz kezkatzen badira, udaletxe batzuk eskaintzen zaizkien baldintzekin konforme ez badaude...

Hainbat arrazoiengatik gaia epaitegietan dago, baina norbaitek zerbait erabaki bitartean, lanak aurrera doaz. Ikusten denez, makinak Justizia baino azkarragoak dira.

Gizakiak bere inguruan dagoen guztia hartu eta bere-ekin nahi duena egiteko esku-bidea duela uste du. Ez zaigu burutik pasatzen beharbada apalago izan behar genukeela, eta balio handiagoa dutela harri, landare eta animalia batzuk, guk sor ditzakegun errepide, tramankulu eta erakuntza guztiek baino.

Honela pentsatzen dugun zenbait lagun Elgeako Zentral Eolikoaren aurkako jarrera azaltzera derrigortuta sentitzen gara. Horregatik, apirilaren 8an (larunbatez) Garibai kalean elkartuko gara 8:30etan, Larreatik Elgeara igotzeko eta apirilaren 16an (igandez) eguerdiko 12etan, kale agerraldia egingo dugu Eskoriatatik Aretxabaletaraino. Gonbidatuta zaude. Beharrezkoa zara!

*Elgeako Zentral
Eolikoaren aurkako taldeak*

GUZTIOK KABITZEKO MODUKO INFORMAZIO MUNDUA

Arrasate Presseko 490. zenbakian, martxoaren 31n Argitaratutako aldizkarian, “Guztiok kabitzeko moduko lan mundua” artikuluan ematen den tratamenduari buruzko hainbat gogoeta egin beharra daukagu. Arrasate-Aretxabaleta Institutuko Zereginen Ikaskuntza Gelako irakasleok, gure desadostasuna eta haserre adierazteko, ondorengoak luza-tzen ditugu:

Lehenik: Guelkarrizketatuak izandakoan kazetariari eman genion informazioa ez da agertzen.

Bigarrenik: Harriturik gaude beste batzuen lana baieztatzen azaltzen garelako, guk halako aipamenik inoiz egin ez dugunean.

Hirugarrenik: Gure iritiz interesgarriak diren adibide batzuk ezabatu egin dira.

Laugarrenik: Gure ahotan jarritako aipamen ezkorra ez da inolaz ere guk esandakoa izan: “Enpresa arrunt batean

lan egin behar badute, nahiko maila altua izan behar dute, bestela, jendeak ez ditu ondo hartzen”.

Guk ez dugu ulertzen zer, zergatik zertarako eskatu zigun Arrasate Pressek informazioa, erreportajea Arrasate Ikastolari buruz soilik aritzen baita.

Bukatzeko, zuei, Arrasate Pressi, guztiok benetan kabitzeko moduko informazio gunea eskaintzea eskatzen dizuegu.

*Espe Garai eta Mikel
Zubizarreta
Arrasate-Aretxabaleta
Institutua*

IKASTETXEEI

Lehenik eta behin, Institutuko gutunean salatzen diren lau puntuetako baieztapenak ezin ditugu gezurtatu, harik eta erreportajerako bildutako informazioa aztertu arte; baina eztabaida horretan sartuta, bataren hitza bestearen aurrez aurre jartzea besterik ez da lortzen.

Herri honetako ikastetxeen artean dagoen lehia bortitzean “ekilibrioak” egiten saiatzen gara, baina bistan denez ez dugu asmatzen.

Honek guztiak gauza bat uzten digu argi: nolabaiteko arauak ezarri beharra daukagula hezkuntza sektorearekin egunero sortzen zaizkigun gatazkei aurre egiteko.

*Arrasate Presseko
erredakzioa*

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 7

- Zabala, Zarugalde

Larunbata, 8

- Ruiz, Maalako Errabala

Igandea, 9

- Morales, San Andres

Astelehena, 10

- Azkoaga, Ferrerías

Asteartea, 11

- Azkoaga, Iturriotz

Asteazkena, 12

- Korkuera, Musakola

Osteguna, 13

- Irizar, Erguin



Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82



MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


Zein kaltetzen du gizonezkoen inpotentziak?

5 urte barru gizonezkoen %52 inpotenteak izango dira, ikerketa baten arabera.



Iker Zearra
(19 urte)
Ikaslea

Gizonezkoak kaltetuko dira, batez ere. Emakumezkoek aurkituko dute beste moduren bat...



Josu Ibaranguoitia
(19 urte)
Ikaslea

Mutilak irtengo dira kaltetuen, dudarik gabe.



Haritz Barrutiabengoa
(23 urte)
Ikaslea

Gizonezko eta emakumezkoak kaltetuko dira, biek dutelako zerbait galtzeko.



Amaia Moreno
(39 urte)
Etxekoandrea

Lehenik eta behin gizonezkoeri eragingo die, beraiek izango dute eta arazoa. Dena dela, jaiotze tasan ere izango du eraginik, jaitsi egingo baita.



Josu San Migel
(46 urte)
Langilea

Gizon eta emakumeentzat izango da kaltegarria, sexu harremanak ezingo dituztelako ongi eraman.



Loli Navarro
(52 urte)
Langilea

Batez ere gizonezkoentzat izango da kaltegarria.



Maite Zeziaga
(36 urte)
Langilea

Gizon eta emakumeengan izango du eragina. Bikotearentzat garrantzia du inpotentziak sexu harremanetarako.



Carolina Vioque
(23 urte)
Langabea

Bikoteari, bie. Gizonari emozionalki asko eragingo dio, eta emakumeari, berriz, haurrak edukitzeko orduan.

Focus TDdi

Injekzio zuzena
2.019.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44

Sagardotegia Txotx egin!

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Berdintasunaren aukera

Familia nomadentzako kanpalekuak jende hori integratu beharrean, marginatu egingo du. Honelakoak dauden hiriburuetan ere delinkuentzia, drogak, lapurretak eta segurtasunik eza egoten da”.

Hauxe baieztatu zuten Meatzerrekako aukokideek, udalak egin nahi duen nomadentzako kanpalekuaren gainean. Udalak herrira etortzen diren nomadentzako irtenbide bat aurkitu nahian, kanpaleku erregulatu bat egin nahi du, baina lekuarekin ez daude ados Meatzerrekako aukokideak. Eta goian aipatutako arrazoiez gain, bestelako arazoak ere ikusi dizkiote tokiari.

Eta horretan arrazoa daukate. Malda batean dago eta alde batean tentsio altuko postea dago eta zelaia inguratzen, erreka bat. Ez dirudi bizi izateko lekurik aproposena denik, baina asmoa ona dela ez dugu ukatuko. Eta bestelakoak, nire uste apalean, arrazakeria kontuak dira. Gu bezalakoak dira, baina beste ohitura batzuekin. Eta elkar bizitzan errespetua da lehenbiziakoa.

Marijo Deogracias



Alderdien foroaren bila

* Jose Ramon Elorza

Bakea eta normalizazioa eremu sozial guztietan eraikitzen da, baina baita maila politikoan ere, oso modu esanguratsuan. Gizarte mugimendu hau jaio zenean, 1992an, bakerako elkarriketaren aldarrikapenak izaera berritzailea, ia iraultzailea zuen eredu nagusiarekiko. Gaur egun, elkarriketaren eskaerak zehaztaper argia du: alderdien foro bat martxan jarri beharra dago.

Jakina, foro hau tresna bat besterik ez da; bakea eraikitzeke borondatea eta egitasmoak ere beharrezkoak dira eta. Baina, aldi berean, borondatea eta egitasmoak garatu ahal izateko prozedura demokratikoak behar dituzte.

Edozein bake prozesutan oinarrizko zeregina du elkarriketak, indarrierarik ezarekin batera. Gertuko beste esperientziek erakusten dutenez, alderdien foroa da bazterketarik gabeko elkarriketa demokratikoa jorrazteko prozedura logiko eta eraginkorra. Praktikan, ordez-

kari politikoek konpondu gabeko elkarbizitza arazoei konponbideak bilatzeko elkarrekin lan egitea erabakitzen dutela esan nahi du, jarrerak kontrajarritik, gaurko egoerak baino kontsentsu zabalagoa lortuko duten proposamen berriak adosteko.

Alderdien Foroaren lehen helburua, topagune eta konfluentzia marko bat eskainiz, bake prozesua erraztea eta bideratzea da. Gatazken konponketa-lantegia da. Prozesuaren printzipioak eta prozedurak finkatzen ditu. Gure kasuan, azken helmuga Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, guztiak barne

hartuko dituen eta guztiak onartuko duten elkarbizitza-ri buruzko oinarrizko akordio berri bat zehaztea da. Azken batean, bere misioa normalizazio politikoa bultzatzea da. Beste modu batean esanda, joko politikoaren arauak adostu eta bereziki, etorkizunean gatazkek modu baketsuan eta demokratikoa nola konpondu adostea.

Alderdien foroko solaskideak EAEko eta Nafarroako Parlamentuetan ordezkaritza duten alderdiek izan behar dute. Era berean, kome-nigarria litzateke Foroa irekia izatea eta gizartearen parte hartzea bideratzeko mekanismoren bat finkatzea.

Lerro hauek idazten ari garen momentuan bake prozesua krisian dago. Indarkeriaren iraupenak eta elkarriketarik ezak egoera osasunez kaxkar dabilela adierazten du eta sufrimenduaren eta arazoaren enkistamendua-jarraipena iragartzen dute. Gaurko krisi egoeratik ateratzeko ekimena izan, blokeo egoera gainditu eta arazoak mahai baten inguruan aztertea da bidea.

Alderdien Foroa bultzatzeko asmoz, asteburu honetan inkesta batzuk banatuko dira Arrasaten, eta datoreen astelehenean, apirilaren 10ean, hitzaldia emango da Arrasateko Udaletxean.

*Arrasateko Elkarriren Lantegiko kidea

“ Alderdien foroa da bazterketarik gabeko elkarriketa demokratikoa jorrazteko prozedura logikoa ”



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia) Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

M A
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

hildakoak

- Pedro Zugasti Iturbe. Martxoaren 28an. 69 urte.
- Manuel Gallastegi Elejalde. Martxoaren 30an. 87 urte.
- Manuel Ormaechea Trojaola. Apirilaren 1ean. 86 urte.
- Severina Filgueira Cordoba. Apirilaren 4an. 58 urte.

jaiotzak

- Aitzol Aretxaga Nieves. Martxoaren 29an.
- Julen Lete Urrutia. Martxoaren 29an.
- Oihan Urizarren Bengoa. Martxoaren 31n.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (erdaraz)

Igandea

12:00 (erdaraz)



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

eskertzak eta urteurrenak

Eskelak,
esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea

Tel.: 943 71 23 91



ESKER ONA

2000.eko apirilaren 1ean hil zen

Imanol Ormaetxea Trojaola

Bere familiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak,
hileta elizkizunetara etorri izana
eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.



ESKER ONA

2000.eko martxoaren 30ean hil zen

Manuel Gallastegi Elejalde

Bere familiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak,
hileta elizkizunetara etorri izana
eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

7

ostirala

■ ZINEA

Secuestrando a la Srta. Tingle, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ GARIZUMAKO HITZALDIAK

San Juan Bataiatzailearen parrokiari Jabi Gomezek, Eskoriatzako parrokiak hitzaldia emango du. San Andresko elizan, berriz, Jabier Zubizarretak. 19:00.

■ LA CHICANA OÑATIN

La Chicana taldeak kontzertua eskainiko du Oñatik Gaztelekuan, 22:30.

■ TECHNO FESTA

Techno festa izango da gaur gauean Bergarako Go-Jam aretoan. Ondoko DJek hartuko dute parte: Ima, Asier, Pablo eta Orlando, 0:00.

8

larunbata

■ ZINEA

Mandibulas, 17:00, eta La Milla Verde, 18:45 eta 22:00, Alai zineman.

■ ELGEARAKO IRTEERA

Elgeako zentral eolikoaren aurkako taldeak Elgearako mendi irteera antolatu du. 08:30, Garibain, eta 09:00, Larreako urtegiari.

■ LUDOTEKA SAN ANDRESEN

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria San Andres Herri Eskolan, 11:00-13:00.

■ OIHUSKA GATZAGAN

Oihuska haize boskote arrasatearrak kontzertua emango du Leintz-Gatzagako Kultur Etxean, 18:00.

■ KONTZERTUA JAMEN

Grave Digger eta Iron Savior taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Sarrerak 2.500 pezetan. 21:30.

9

igandea

■ ZINEA

Mandibulas, 17:00, eta La Milla Verde, 18:45 eta 22:00, Alai zineman.

■ ABESBATZEN SAIOA

Argentinako Cordoba hiriko unibertsitateko abesbatzak eta Goikobaluk emanaldia eskainiko dute. Amaia antzokian, 20:00.

■ KONTZERTUA GO-JAMEN

Argentinako Jesus Martirrek eta Embryo Greedek kontzertua emango dute Bergarako Go-Jam aretoan. Sarrerak 700 pezetan. 21:30.

10

astelehena

■ ZINEA

La Milla Verde, 18:45 eta 22:00, Alai zineman.

■ ANTZERKIA KURTZEBARRIN

Aretxabaletako Kurtzebarri herri eskolako DBHko 2. ziklokoek Shakespeare in Love filma ikusiko dute, 8:30.

■ HITZALDIA SAN FRANTZISKON

Garizumari buruz arituko da Jose Luis Agirretxe frantziskotarra, 19:00.

■ KALE BILKURA

AABBB kale bilkura antolatu dute, euskal presoak egiten ari diren gose greba mugagabea salatzeko. Herriko plazan, 19:00.

Antzerkia Erguin Herri Eskolan

Erguin Herri Eskolak antolatzen dituen ekintzen artean antzerkiak garrantzi handia du. Eta hilaren 10etik 12ra bitartean, hango ikasleek antzezle eta kantari lanetan jardungo dute. Astelehenean, Hamelingo txirularia eta Ahate Itsusia antzezlanak eta Txiki Txikia abestia izango dira; asteartean, Arratoitxo kaskarina eta Zoritzarreko babutxak antzerki lanak, eta Pingui Pinguino abestia; eta eguaztenean, Ama Benidorrera eta Ikas Gela antzezlanak, eta Oh Bugi Bugi! abestia. Erguin Herri Eskolan, guztiak 18:00etan.

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaerak berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

11 asteartea

■ ZINEA

La Milla Verde, 18:45 eta 22:00, Alai zinemán.

■ ZORIONAREN BILA

Gurasoen formakuntza plangintzaren barruan, "Zorionaren Bila" izeneko hitzaldia antolatu du Almen ikastolak. Pedro Hernandez katedrati-koak emango du. Almeneko areto nagusian, 18:00.

■ ENKARTELADA SEBER ALTUBEN

Gestorek enkartelada egingo dute. Seber Altube plazan, 19:00.

■ GAZTE TOPAGUNERA-KO IZEN EMATEA

Hilaren 8an amaitzen da Jarraik antolatu duen Gazte Topagunerako izena emateko epea. 10 txartel-ek 40.000 pezeta balio dute, eta ondorengoek 4.500, banaka nahiz taldeka. Gazte Topagunea apirilaren 20tik 22ra izango da, Kanbon.

■ ARTE PLASTIKO LEHIAKETA

Domekan, hilaren 9an, amaitzen da Gure-Leku tabernaren arte plastiko lehiaketan bozkatzeko epea. Egun horretan jakingo da nor izan den aurtengo irabazlea. 19:30.

■ ERAKUSKETAK MONTERRONEN

Hilaren 9ra arte izango da ikusgai zaborretatik ateratako jostailuen erakusketa, Udalak eta Ingurugiro Eskolak antolatu. Ordutegia ondokoa da: aste barruan, 18:00-20:00, eta asteburuan, gainera, 12:00-14:00. Hilaren 10ean, beste erakusketa bat zabalduko da, liburutegitik ateratako liburuena, hain zuzen. Horrek 14ra arte iraungo du.

■ ARRASATE LITERATURA SARIEN BANAKETA

AED elkarteak antolatu dituen XIII. Arrasate Literatura lehiaketako irabazleak apirilaren 13an emango dira jakitera, Udaletxeko pleno aretoan izango den sari banaketan. 19:00.

■ ERAKUSKETA BERRIA TOKI-EDERREN

Zabalik izango da apirila osoan Diana de Orbe margolari santurtziarren erakusketa, San Andreseko Toki-Eder kafetegian.

■ LORE GAZTEAKEN BAZKARIA

Hilaren 10a duzue Lore Gazteaken partaide eta partaide ohiek izango duten bazkarirako izena emateko azken eguna, Hiren edo Kajoin. Bazkaria 15ean izango da eta herriko plazan bilduko dira. 12:30.


13 osteguna

■ ZINEA AMAIAN

Zine klub saioa antolatu du kultura sailak. Seth Zvi Rosenfelden *Beso de Hermano* filma eskainiko da. Amaian, 21:30.

Bigarren eskuko autoen II. erakusketa

Auto beharrean bazaude, eta zure beharrek, gustuek edo sakelak auto berria eros-teari uko eginarazi badizute, hementxe izango duzu 100 auto baino gehiagoren artean aukeratzeko modua. Izan ere, iaz antolatu zuten bailarako hainbat auto saltzailek Debagoieneko Bigarren eskuko autoen erakusketa eta izandako arrakasta ikusita, bigarrena ere antolatu dute. Hilaren 7an, 8an eta 9an izango da aurtengo erakusketa, Eroski Hiperraren ondoko Arruena parkean. Ordutegia: 10:00-20:00, eta domekan, 10:00-14:00.



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

astea bi hitzetan

■ **Basogintza azoka**

Euskadiko Zur Mahaiak jaialdi polita antolatu zuen pasa den larunbatean Urkulun. Euskal Herriko Basogintza Topaketa Aretxabaletako urtegian izan baita. Zurarekin eta basogintzarekin zerikusia duten gauzak erakusteko hogeit hamar erakusmahai ipini zituzten: papergintza, zerralanak eta egur trinkoa, besteak beste.

Eskulanak ikusteko aukera ere izan zen urtegian, altzariak, saskiak eta zestapuntak, esateko. Horrez gain, basogintza zerbitzuak informaziorako mahaiak ipini zituen edozein kontsulta egin ahal izateko.

Eguraldiak eta Urkuluko giro onak lagunduta, jende ugari gerturatu zen.

■ **Haur liburuaren eguna**

Haur Liburuaren Eguna izan zen pasa den astelehenean. Hori ospatzeko Arrasateko udal liburutegiak ekintzaz

jositako eguna antolatu zuen. Goizean, Olarte, Umezaintza, Erguin eta San Andres Herri eskoletako bost urteko umeak izan ziren haur liburutegiko zerbitzuak ezagutzen. Axun Agiriano, Haur Liburutegiko arduraduna ibili zen jardun horretan. Ondoren, Itziar Zubizarretak, ipuin kontalari donostiarrak, ipuinak kontatu zizkien txikiei.

Umeak gustura asko ibili ziren liburu artean.

■ **Mondragoetarra hirugarren**

Euskadiko V. Sagita lehiaketako bigarren final erdia Mondragoen izan zen pasa den zapatuan. Sei partaideren artean, Enrique Perez arrasatearra hirugarren geratu zen. Guztira, hogeit hamar partaide ari dira txapelaren atzetik lehiatzen eta Enrique Perez da mondragoetar bakarra.

Asteburuan, hirugarren final erdia izango da. Hirue-

tatik puntu gehien lortu duten zortziak pasatuko dira finalera. Beraz, asteburura itxaron beharko dugu, arrasatearra finalera helduko den ala ez jakiteko. Hala ere, bide onetik doala dirudi.

■ **Sexologia gida kalean**

Udal Liburutegiak Sexualitate bulegoarekin elkarlanean Sexologia Gida plazaratu dute.

Adinaren arabera sailkatuta, sexualitatea lantzen duten liburuak gomendatzen ditugida honek.

Guztira 86 liburu batzen ditu. Pertsona helduentzako 50 liburu pasatxoko zerrenda aurkezten du. Gaztetxo eta nerabeek, berriz, 30 liburu dituzte aukeran.

Liburuak gomendatzeaz gain, non aurkitu ere azaltzen da.

Guztira 3.000 ale plazaratu dira. Herriko hainbat tokitan banatuko dira, interresa duenak eskura dezan.

■ **Debagoiena lotzen**

Joan den ostiralean amaitu ziren Oñatiko saihebidetako egokitzeko lanak.

Inaugurazio ekitaldian Antton Jaime, garraio eta errepedetako sailburua, Jose Mari Sarasola, errepedetako zuzendari nagusia, eta Angel Iturbe, Oñatiko alkatea izan ziren.

Foru Aldundiak eta Oñatiko udalak 220 bat milioi pezetako aurrekontuarekin egin duten proiektua.



“ Jarraipen Batzordea sortu zen obraren jarraipena eta kontrola egiteko, inpaktoak gutxitzeko (...). Hasieratik borondate falta egon da eta hori ez bada aldatzen, ez dagor gauza onik. Irtenbide bakarra Danimarkako ereduaren ereduaren aplikatzea legoke. Danimarkan, Parke Eolikoetan lurjabeek eta administrazio lokalek parte hartzea dute. Erabakiak hartzeko gaitasuna ere badute. Hemen dugun Jarraipen Batzordea, aldiz, ez da binkulantea.

PEDRO LASAGABASTER
Ardatza
(2000.3.24)

HIES BERRIA
Tel.: 943 79 26 99

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412



Aukera biologikoa

**Laister
zabalik!!**

- Osasuna eta egoera fisiko egokia mantentzeko toki aproposa.
 - Slikadura biologikoa: Barazkiak, ardoa, frutak, ...
 - Osasuna berreskuratzeko produktu fitoterapeutikoak
 - Sendagile naturista, iridiologoa (K. zenb. 6166)
 - Medikuntza Tibetarra (Sewan Dabul, sendagile tibetarrarekin)
 - Kirolarientzako entrenamendu pertsonalizatuak
 - Infragorriko sauna terapeutikoa (lunbagoa, ziatika, artrosia, etab.)
 - Shiatsu masai japonesa (digitopuntura)
- ... eta argaltzeko metodorik aurreratuenak
(Tecniline obeactive),
Jaione Yeregi dietistarekin.

Zarugalde kalea, 8 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 56 38

Loramendi
kirolak

Udaberrirako prest!!

Arrasaten

IKASTAROAK ATZERRIAN *Uda honetan*



CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

■ Ekintza turistikoa eta ludikoekin

haur, gazte eta helduentzako

■ Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin



Florida, 8 A
Tel.: 945 15 01 55
Vitoria - Gasteiz

Avda. Alava, 4
Tel.: 943 71 20 55
Arrasate - Mondragón

Olakua, 14
Tel.: 943 71 60 00
Oñati

Zubieta, 26
Tel.: 943 43 31 02
Donostia - San Sebastián



“GAZTEAK ETA ARRAZAKERIA” XI. ARGAZKI LEHIAKETA



Fernando Gomez Larrea. Trapagaran (Bizkaia)

BI KATEGORIA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein

SARIAK

- A) **kategoria:** (modalitatea bereiztu gabe)
 - 1. saria: argazki makina (reflex)
 - 2. saria: argazki makina (konpaktoa)
- B) **kategoria:**
 - *zuri-beltzean*
bildumarik onena: 75.000 PTA
argazkirik onena: 50.000 PTA
 - *koloretan*
bildumarik onena: 75.000 PTA
argazkirik onena: 50.000 PTA

Emakume Sailaren saria: 50.000 PTA

Lanak
aurkezteko epea:
URRIAK 11



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■

ARKO, aurrera muga barik

Arrasate Komunikabideak elkarteak, aldizkari hau kudeatzen duenak, urteroko batzar nagusia egin berri du Monterronen. Azaldutakoaren arabera, bi erronka nagusi izango ditu aurtun: Goiena proiektua eta Arrasate Irratia.

Goiena proiektuari dago-kionez, bailara honetan komunikazio zerbitzuak eratuko ditu. Honek aldaketak eragingo ditu, noski, bai Arrasate Pressen eta baita telebistan ere, Goienak zurrupatu egingo ditu-eta, horko hainbat langile.

Arrasate Irratia izango da bigarren erronka handia. Gaur egun emisioa etenda dago irratian eta maiatzaren 2ra arte halaxe izango da. Orduan berriro martxan hasiko da irratia, ARKOK kudeatuta.

Iazko jarduerari buruz, gauza bat nabarmendu nahi izan dute ARKOk arduradue-



Goiena eta irratia dira ARKOn aurtengo erronka nagusiak.

nek: ATBk eta ETBk egin zuten hitzarmena. Horren arabera, Arrasate Telebistak agentzia lanak egiten dizkio Euskal Telebistari, bailarari dagokion informazioan.

PUBLIZITATEA SENDOTUZ

Publizitate saila, bestalde, sendotuz doa eta produktu gehiago eskaintzen. Kan-

pora begira, esaterako, EAEko udal euskaltegien publizitatea darama. Baita Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratzen duen Campusa izeneko aldizkari berriarena ere.

Bukatzeke, ARKOn zuzendaritza batzordean bi kide berri dira: Rafa Mungia mondragoetarra eta Maria Agirre atxabaltarra.

Euskaraz ikasteko eskubidearen alde

“Euskara eskubidea eta abantaila” izeneko mozioa onartu du Arrasateko Udalak. Oro har, hezkuntza sistema euskalduntzeko eskaera egin da, Euskal Herrian egiten ari den kanpainarekin bat egin.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak eskatu du bere onespina, baina, Euskal Herri osoan egiten ari den kanpainaren barruan, udal guztietan egiten ari diren eskaera da.

15 talde dabilta jardun horretan. Tartean STEE-EILAS eta LAB sindikatuak, Seaska Iparraldeko Ikastolen elkarteak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak, Partaideko

Ikastolak eta Euskal Herrian Euskaraz taldea.

Hezkuntza sistema euskaldundu beharra dagoela eta, hiru eskaera egin dira Arrasateko Udalean. Batetik, Euskal Herrian euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzea, euskaldunok berezkoa dugun eskubidea bermatuz. Bestetik, Euskal Herrian egiten ari den kanpainan laguntzeko 25.000 pezetako diru laguntza eskatu zaio udalari.

Azkenik, onartutakoaren berri emango zaie Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko hezkuntza sailei. Baita Frantziako eta Espainiako gobernuak ere.

Hildakoa Urkulun

Larunbatean arratsaldeko 16:00ak inguruan, gizon ezko baten gorpua atera zuen Ertzaintzak Urkuluko urtegitik. Emandako informazioaren arabera, JM. E. A. inzialak zituen gizon ezkoak, Aretxabaletkoa zen eta 73 urte zituen.

IKERKETA ZABALIK

Partikular baten abisua jaso zuen Ertzaintzak, eta gizon ezko itota zegoela baieztatu zuten. Ondoren Polloeko tanatoriora eraman zuten gorpua autopsia egiteko.

Ertzaintza gertaera argitzeko lanean ari da.

Mondragoeko kooperatibak sarituta

Gipuzkoako Bazkondeak Industria Sariak banatu zituen zortzigarren urtez. Hiru sari nagusi eta hamar izendapen berezi egin ziren joan den astean Donostiako Kursaalaren. Horien artean Fagor Elektresnak lantegiari “Enpresa Esportatzailearen” saria eman zioten. Izan ere, Fagor Elektresnak hiru kontinenteetan dago eta 1999an produkzioaren %35 esportatu zuen. Horrez gain, Espainiako merkatuaren %24 du Fagorrekin.

“Urteko Enpresaria” saria ere eman zuen Gipuzkoako Bazkondeak. Juan Carlos Larrañagak eta Jose Ignacio Igarzak jaso zuten sari hori; lehenak Bergaran duen Marcos Larrañaga enpresak izandako ibilbidearengatik eta bigarrenak herri bereko Ibili enpresarengatik.

MENDEKO ENPRESARIAK

Bestalde, mendeko enpresari onenak ere saritu zituen Gipuzkoako Bazkondeak. Guztira hamar izendapen egin ziren. Hauetatik bi, mondragoetarrak: Jose Maria Ormaetxea eta Jose Maria Arizmendarreta. Ormaetxeak etxetresna elektrikoaren merkatuak izan duen garrantziagatik jaso zuen. Arizmendarretari Gipuzkoako industriaren garapenean izan zuen eragina dela eta eman zioten.



Goiena kooperatiba, aurrera

Goiena Komunikazio Zerbitzuetako kooperatibak beste urrats bat eman du. Pasa den ostiralean eratze ekitaldia izan zuen, Aretxabaletako Otalora jauregian. Legez eratzeko behar diren kooperatibaren estatutuak, behin-behineko errektore kontseilua eta eratze akta onartu ziren.

Eratze batzarrean Debagoienerako euskara elkarte guztietako ordezkariak izan ziren, guztiak baitira Goienako partaide.

Goiena osatzen duten elkarrekin osatu zuten ordezkariak eratzeko eratzaila: Arko (Arrasate), Jardun (Bergara) eta Laixanek (Oñati), azkiodunak diren aldetik, Txirritola (Aramaio) Arabako bakarria delako eta Axtroki (Eskoriatza) gainerakoak ordezkaturik.



Debagoienerako euskara elkarte guztietako ordezkariak izan ziren ekitaldian.

Kooperatibaren behin-behineko karguak ere izendatu ziren batzarrean. Horrela, Estepan Plazaola izango da Goienako lehendakaria. Lehendakariordea, berriz, Esteban Arriaran oñatiarra. Eta idazkaria Marijo Deogracias antzuolarra. Gainerakoak bokalak izango dira.

Goienak komunikazioaren arlo guztiak landu nahi ditu gure bailaran. Joan den martxoaren 13an Goienkaria aterra zuen, laster herri aldirietan batera banatuko den gehigarriaren lehen alea. Maiatzaren 22an, berriz, eta okerrik ezean, Goiena Telebista (GoiTB) abiatuko da.

Uribetxeberria epaitzekotan

Audientzia Nazionaleko akusatzaileak 24 urteko espetxe zigorra eskatu du Josu Uribetxebarria mondragotarrarentzat.

Akusazioaren arabera, 1986an Josuk eta beste bi lagunek, "Txantxangorri" komandoko partaideak denak, guardia zibil bat tirokatu zuten Arantzazun.

Hiru akusatuek uko egin zioten auzitegian berba egiteari eta auzitegira bidean jasotako tratu txarrak salatu zituzten.

HIRU URTE


Josu Uribetxeberria 1997. urteko uztailean atxilotu zuten. Madrilan egon da ordutik, bi kartzelatan: Soto del Realen eta Valdemoron.

Plastikogintza ikasten

Plastikoa lantzeko goi mailako kurtsoa jarriko du martxan Bergarako Miguel Altuna Institutuak.

MCC taldeko Antzuolako Matz Erreka enpresarekin hitzarmena sinatuko dute, datorren ikasturtean kurtsoa hasteko. Datorren astean, 1.550 m. karratuko pabilioi berria inauguratuko du enpresa honek. Automatismoen saila jarriko dute han eta 50 bat langile arituko da lanean.

Baina Matz Errekan 250 langile ari da gaur egun. Izan ere, enpresa honetan hiru lan arlo daude. Torlojugintza, automatismoak eta plastikogintza. Eta azken horretan, plastikogintzan, apustu handia egin du Matz Errekak. Oraintsu, ISO 9.000 kalitate ziurtagiria eman diote, plas-



Datorren astean 1.550 m. karratuko pabilioa inauguratuko dute.

tikozko pieza zehatzak egiteagatik. Auto enpresetan aritzeko oso garrantzitsua dela adierazi digu, Mikel Agirrezabal, kudeatzaileak.

Eta plastikoen arlo horren garrantzitsua izanik, horretara zuzendutako ikasketak zikloa antolatzea erabaki dute.

Bergarako Miguel Altuna Institutuaren laguntza izan dute lan horretarako.

Goi mailako heziketa zikloa jarriko du martxan. Plastikoa eta kautxua lantzeko goi mailako zikloa, hain zuzen ere.

Inguruotan ez dago horrelako ikasketarik eskaintzen

duen ikastetxerik eta Matz Errekaren kasuan behar-beharrezkoak dira honelako ekimenak.

Bergarako Miguel Altuna Institutuan mekanika, elektronikateletronikoa eta administrazioko goi mailako ikasketak egiten dira eta datorren urtetik aurrera, ziklo berri hau. Eta gainera, lantegietako langileak birziklatzeko egitasmoa ere badu goi mailako ziklo honek.

Maiatzean sinatuko dute hitzarmena Matz Errekak eta Miguel Altuna Institutuak.

Baina aurretik, datorren asteazkenean, apirilaren 12an, Matz Errekak pabilioi berria inauguratuko du eta inguruko herritarrek gonbidatuko ditu "ateak zabalik" eguna egingo dute eta.

Argazkia: Berrigara.

Antzerki-klown ikastaroa



Irakaslea: Ernesto Agirre, Ohiulari Klowneko partaideak
Egutegia: Maiatzetik San Juanak arte (25 ordu)
Egunak: Larunbata
Orduetgia: Goizez (10:00 - 13:30)
Tokia: Arrasate Musikal (Zerrajera)
Matrikula: 3.000 PTA
2.000 PTA ikasle eta langabeentzat



Gazteria Saila ■

ARRASATEKO UDALA

Gazte ikastaroak • Gazte ikastaroak • Gazte ikastaroak • Gazte

Izen ematea Gazte bulegoan edo 943 77 00 65 telefonoan

Literatura ikastaroa

"Jdazketa literarioaren lehen pausoak"

Irakaslea: Juan Martin Elexpuru
Egutegia: Maiatzaren 4an hasi eta ekainaren 1era arte (18 ordu)
Ikastaro egunak: Astelehenak eta ostegunak
Ordua: 19:00 - 21:00
Tokia: Monterron
Matrikula: 3.000 PTA
2.000 PTA ikasle eta lengabeentzat



“SALAMANKARA NINDOALARIK...”



Arrasate Ikastolako ikasleak Salamancara joan ziren bidaiari, hango eraikin eta bestelakoak ezagutzera. Eta nola ez, ikurrina eraman zuten, dudarik egon ez dadin nondik joan ziren!



Datorren hilean ezkonduko du Pirri. Ostiralean ezkonduko du agurreko afarian “Spirituaren lagunak, eta Iratxeko monasterioan ere traje bera luzitu zuen. Laster Parisko pasarelara emazteari helduta gaitu.

AURTEN DOZENA ERDI HAMARKADA



• 1607612511

“Hainbeste emakume batera dagoen lekuan, gauza onik ez” pentsatuko du batek baino gehiagok. Baina zergatik batera hainbeste emakume? Bada, aurten 60 urte betetzen dituztenek egunpasa ederra egin zuten martxoaren 25ean. 63 bat emakume elkartu ziren, San Frantzisko Xabier elizan meza entzun eta ondoren bazkari legea egiteko. Batzokian bazkaldu zuten, eta oso ona omen zegoen guztia. Ez da gutxi, neskak!

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABAETA

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

KARTA JOKOAN TXAPELDUN!



Argazkia: Joxebi Ramos

Uribarriko erretiratu
 etxean karta jokoen
 txapelketako sariak banatu
 ziren joan den ostirale-
 an. Musean Andres
 Elortondok eta
 Julian Biterik
 irabazi zuten,
 tutean ere
 Andres
 Elortondok eta
 Andres
 Bengoak eta
 briskan Eufemia
 Martin eta Manolo
 Hernandez andra-
 gizonak. Txapel eta
 guzti, pozik arraio
 ageri dira. Zorionak!



KAIXO PUPPY!

Umezaintzako lau eta bost urteko
 haurrek urtero egiten dute
 irteeraren bat. Joan den martxo-

ren 29an Guggenheim museoa
 ikustera joan ziren 75 bat ume,
 Bilbora. Ondoren Txikiparken

gura adina jolas egin zuten.
 Kultura ezagutu eta ongi pasatze-
 ko aukera, beraz, biae berean.

**Hilbera
 kafetegia**

Uribarri Etorbidea
 ARRASATE
 Tel.: 943 79 22 70



Txitxinpe
 Bereziatasunak
 Kazuelatxoak
 Otarteko hotz eta beroak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

"PAL"

burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
 Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**ARRASATE
 HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
 ARRASATE

Lurjabeak kablearekin haserre

Musakolatik Aretxabaletako Fagor Ederlaneraino 30 kwko kable bat eraikitzeko asmoa dela eta, eztabaida sortu da azkenaldian herrian. Musakolako subestazioan hasi, Bakuara igo, Asuelara jaitsi eta Kurtzetxiki mendiaren gailur ostetik Bedoña aldera joko du kableak, Iberdrolaren proiektuaren arabera. Bedoña auzoko Iranzabaletatik Arbizelaira jaitsiko da segidan, Oro auzoa albo batera utzita. Ondoren, Aretxabaletako Elizgaraitik zehar Larrñora igo eta handik Fagor Ederlaneraino iritsiko da. Ia 8 kilometro izango ditu.

Bedoña eta San Andres auzoetako hainbat lurjabearen ustez, kable horrek izugarritzko kaltea eragingo



Bedoña eta San Andres auzoetako lurjabeak prentsaurrean.

dio ingurugiroari. Hori ikusita, auzokideek Iberdrolak proposatutako ibilbidearen aurrean, beste bat aurkeztu diote Arrasateko Udalari. Eibar-Gasteiz autopistaren ibilbideari jarraitzen dio auzokideen proposamenak.

“Autopistak eragingo duen kaltea jakinda, hor gertuan tentsio altuko kablea jartzea litzateke zuzenena. Modu honetan obra hori aprobetxatu eta eragindako kaltea erdia litzateke”. Horrez gain, auzokideek udalari eskatu diote

Iberdrolari kablea eraikitzeko emandako baimena bertan behera lagatzea.

Iberdrolari emandako baimena ezeztatu arren egitasmoa igoyal-igoal gauzatu litzatekeela erantzun du Arrasateko Udalak. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak kablea eraikitzeko falta diren lurrak berehala okupatzeko asmoa du, beraz, Arrasateko Udalak ezer gutxi egin dezake.

Auzokideek ibilbide alternatiboa aurkeztu zutenean, Iberdrolari eraikitzeko baimena eman aurretik, proposatutako ibilbidea behar bezala aztertu zela ere jakinarazi du udalak.

Auzokideen ustez hori dena ez da horrela, eta udalaren gain ezarri dute arduragutia.

Meatzerrekan ez dute kanpalekurik nahi

Arrasateko Udalak nomadentzako kanpalekua Meatzerrekan jarriko dela erabaki du aste honetan. Era berean, martxoko udalbatzarrak, Meatzerrekako lurzolu baten arau subsidiarioak aldatu zituen.

Meatzerrekako auzokideak haserre daude oso udalaren asmo honekin. Auzokideen esanetan, auzoari kalte egingo lioke Meatzerrekan mota honetako kanpaleku bat jartzeak. Baieztape hau egiteko honako arrazoiak eman dituzte: orain arte egin diren mota honetako ekintzak porrot hutsa izan omen dira. Gainera, kontrol gutxi ezarri dela ere



Meatzerrekako zelai honetan ipini nahi da kanpalekua.

salatu dute auzokideek. Meatzerrekaren garapen industrialari kalte egingo liokela uste dute auzokideek, eta baita Meatzerrekako etxebizitzaren balioari ere. Arrazoi juri-

dikoak ere gaineratu dituzte Meatzerrekako auzokideek. Hala nola, gune horrek ez duela betetzen kanpaleku batek eskatzen duen legedia, 30.000 voltioko kable bat dagoela

gertu eta gainera, hortik pasatzen den erreka gainezka egin duela behin baino gehiagotan. Distantzia gutxira bi zabortege eta errepe bat daudela ere gogorarazi du auzo alkatuek eta baita errepe bat ere. Arrazoi hauek guztiak, alegazio moduan aurkeztuko zaizkio udalaren proiektuari.

Kanpalekuari buruz udalak prentsaurrea eman du bere jarrera azaltzeko. Esandakoaren arabera, udalak bi proiektu ditu. Bata Zaldispeko hiru familientzat, eta bestea Arrasatera etortzen diren nomadentzat. Azken hauendako da Meatzerrekan egingo den kanpalekua.

Zaborra lehengai bihurtzea helburu

Zaborra tratatzeko moduak garapen izugarria izan du azken urteotan. "Erabili eta Bota" politikatik, MBB delako politikara pasa gara: Murriztu, Berrerabili,

Birziklatu. Europatik datozen aginduen eraginez, batzuetan; etorkizunarekiko kezkareratik, bestetan. Kontuak kontu, zaborra ateratzeko orduan, zabor mota-

ren arabera hiru poltsatan sailkatu behar da orain. Ondoren, mota bakoitzak dagokion tratamendua jasoko du ahalik eta probetxu handiena ateratzeko.



Orain bi urte ezarri zen etxeko tresna txikiak batzeko zerbitzua.

Lan honetan aipamen berezia merezi du Debagoieneko Mankomunitateak.

Birziklapena bultzatzeko orduan, aurrea hartu du hainbat ekimenetan.

Halaxe kontaktu digute Kristina Iraolagoitiak eta Jose Martin Gallastegik, Mankomunitateko Ingurugiro teknikariek eta German Berezibar kudeatzaileak.

ERRE ETA KITTO

1983. urtean ipini zuen Mankomunitateak Hiri Hondakin Solidoak (etxetako zaborra) bildu eta garraiatzeko zerbitzua Mondragoen. Ordura arte Mondragoen CESPAn enpresak zuen horren ardura eta Debagoieneko besteko herriek, bakoitzak bere alde-tik egiten zuten lan hori. Jeneralean, batutako zaborra herri bakoitzeko zabortegira botatzen zen.

Mankomunitateak zerbitzu bakarra ezarri zuenetik aurrera, Mondragoen zein inguruetan batzen zen zaborra AKEIko errausketa lantegira eramaten zen eta han erre.

Halaxe egiten zen 1996ko abenduan errausketa lantegia itxi arte. Europako Komunitate Kontseiluaren aginduz, "udal hondakinrentzako instalazioetatik datorren atmosferako kutsadura murrizteko", AKEI itxi beharra zegoen. Ire-

kita iraun duen 12 urteetan, guztira 520.000 tona zabor erre zen Kanpazarrerako bidean.

Errausketarako lantegia ixtearen ondorioz zaborra Sasietako zabortegira eramaten hasi zen.

BEIRA LEHENENGO

Zaborretik beira banandu zen lehenengo. "Logikaz, berriro ere erabil daitekeela ikusi zen eta horretan hasi ginen. Hasie-



Hondakindegia alternatiboetan gremioen eta partikularren hondakina jasotzen da bereziki.

ran bi koloretako edukiontzia ipini genituen, beiraren araberakoak, zuriak eta berdeak. Ondoren, beira gutzia batera jasotzen hasi zen horren ardura zuen enpresa eta kolore bakarrek edukiontzia laga genuen, berdea”.

Vidrala SA enpresak hartu zuen beira batu eta berziklatzeko ardura hasieratik; orain ere horretan dihardu. Laudiora eramaten da bailarran batzen den beira gutzia eta lehengai moduan erabiltzeko prest lagatzen dute han.

1996. urtean 141 edukiontzi zeuden Debagoiena guztian. 2000. urtean, berriz, 149ra igo da kopurua, 450 biztanleko edukiontzi bat gutxi gorabehera.

PAPERA ETA KARTOIA

Birziklatzen hasi zen bigarren produktua da. “Euskal Herrian, Debagoieneko Mankomunitatea izan zen zerbitzua eskaintzen lehenetakoa. 1992ko urrian estreinatu ziren aurreneko 40 edukiontziak”. Edukiontzi bakoitzak, gainera, ontzi txikiak zituen erantsita, pilak batzeko.

1994. urtean edukiontzi kopurua bikoiztu egin zen. Gaur egun, 139 paper edukiontzi daude Debagoienan

eta 49 Mondragoen; 487 biztanleko bat.

FCC enpresak batzen du papera eta kartoia. Laudion pilatzen da batutakoa eta ondoren paper lantegietara eramaten da berriro erabiltzeko.

Pilei dagokienez, Recipilas izeneko enpresara eramaten dira, Sondikara. Han, pilen

metalak aprobeztatu egiten dira; kutsadura ezabatzeko tratamendua ematen zaie berriro erabiltzeko: merkurioa, beruna, zinka... Erabili ezin dena modu kontrolatuan botatzen da.

ONTZIAK

Hauxe da birziklapenean izan

den berrikuntza. Aurten estreinatutako zerbitzua da. Plastikozko zein metalezko ontziak eta brik-ontziak batzeko edukiontzi horiak ipini dira. CESPAn enpresak du lan honen ardura. 134 ontzi ipini dira Debagoienan, 475 biztanleko bat, batez beste.

Edukiontzietan jasotako ontziak batu eta Legazpiko enpresa batera eramaten dira eta han ontzi motaren araberrako banaketa egiten da: plastikozkoak, PVCzkoak, Brik motakoak eta metalezkoak. Ontzi mota bakoitza leku jakin batera bidaltzen da. Plastikozkoak Legazpiko REMAPLAST enpresara, PVC motako ontziak Madrilera, metalezkoak fundizioetara eta brik motakoak Lleidara; izan ere, hiru materialez osatuta daude brik ontziak: metalez, kartoiz eta plastikoz.

Ontziei dagokienez, sailkapenak eskuz egiten dira. Hori jakinda, komenigarria izaten da ontziak botatzeko erabilitako poltsak ez ixtea, lana izugarri samurtzen da eta.

TAULA KRONOLOGIKOA

- 1976** Debagoieneko Mankomunitatea sortu zen.
- 1978** AKEI errausketa lantegiaren eraikuntza adjudikatu zen.
- 1982** AKEI behin betiko martxan jarri zen.
- 1983** Oñatiko hiltegia inauguratu zen, arazketa biologikoaren sistemarekin.
- 1983** Hondakin Handiak biltzeko zerbitzua ezarri zen. Mondragoen Hiri Hondakin Solidoen zerbitzua ezarri zen.
- 1984** Beiraren gaikako zerbitzua ezarri zen.
- 1992** Lehenengo Hondakindegia Alternatiboa abian jarri zen, Mondragoeko Markuleten.
- 1992** Lehenengo Hondakindegia Alternatiboa abian jarri zen, Markuleten.
- 1993** EPELEko zabortegi kontrolatuaren inaugurazioa.
- 1994** AKEIko zepategia egokitzeko 1. fasea.
- 1996** AKEI behin betiko itxi zen. Debagoieneko Hiri Hondakin Solidoak Sasieta zabortegira eramaten dira.
- 1998** Hondakindegia Alternatiboetan etxetresna txikiak eta ordenadoreen hondakinak, hurrenez hurren.
- 1999** Etxeko ontzien gaikako bilketaren ezarpena.

EPELEKO HONDAKINDEGIA

1993. urteko abuztuan ireki zen. “Hondakin solido geldo ez toxiko eta ez arriskutsuen” Epeleko Hondakindegia da bere izen osoa. 1.817.100 m³ko edukieraz, 30 urteko biziraupena du arreakusita.

Urtean 250 egunez irekitzen da Epele; iaz 50.254 tona hondakin batu ziren, metro


“Ontzien sailkapena eskuz egiten da. Komenigarria da ontziak botatzeko poltsak ez ixtea”

ARRASATEKO KASUA

Latza da Mondragoen zaborrarekin dagoen arazoa. Esanak esan, eginak egin, jendeak ez ditu errespetatzen ez zaborra ateratzeko orduak ezta zaborra botatzeko guneak ere. Ondorioz, kalean pilatzen dira hainbat egunez. Zikinkeria eta usain txarra eragiteaz gain, ez da bat ere ona herritarren osasunerako. Edozein infekzio harrapa daiteke inguruan ibili eta zauriren bat izenez gero, gaztetxoenek, bereziki.

Mankomunitatea arazoa aztertzen ari da eta oraindik ez du erabakirik hartu. Bi aukera daude: zabor bilketa egunero egin (zergak gora) edo edukiontzi gehiago ipini (aparkaleku gutxiago).

Mankomunitateak zer egin erabaki arte, beraz, herritarren ardura da zaborra behar bezala atera eta botatzea. Ez dirudi lan handia denik, batez ere, denon onurakoa dela jakinda, beraz, egin dezagun!



kubikoko 70.785 tona.

“Lehenagotik Epelen zegoen zokogune bat aprobetxatu eta hura hondakinez betetzea da egiten dena. Hon-

dakinak bota eta ondoren estali egiten da; belarrak eta lurrak laguntzen du horretan.”

— Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak hilero libxiatuen ana-

lisia egitera derrigortzen dituta mota honetako hondakindegiko arduradunak. Hau da, euria egitean zabortegiko uren kalitatea aztertzen da. Gainera, hondakindegia behin betiko itxi ondoren, hainbat urtetan gunea berreskuratzea kontrolatzen segitu beharra dago. Bestalde, produktuen Epele erabiltzeko baimena jaso aurretik derrigorrezkoa da analisiak egitea. Hondakin toxikoak enpresaren esku geratzen dira.

Zabaldu zenetik hona 275 metroko altuera irabazi du Epelek; guztira 380 metro izarera irits liteke; orain bistan dagoen errepidea estalita gertatu da etorkizunean.

HONDAKINDEGI ALTERNATIBOAK

Mondragoeko Hondakindegia Alternatiboa Ibarretan dago. Enpresa handiek ez beste guztiek eta partikularrek sortzen dituzten hondakinak biltzeko zerbitzua da, toxiko eta arriskutsuak ez badira. Txatarra eta kartoia aprobetxatzen dira

bereziki Hondakindegia Alternatiboetan. Obretako hondakinak, adibidez, asko botatzen dira.

Orain bi urte etxeko tresna txikiak (TB, irrati, zurgagailu, ordenadore eta antzekoen hondakinak) batzen hasi ziren Hondakindegia Alternatiboetan. Fluoreszenteak ere haraxe bota behar dira.

Batzen den material guztia Indumental eta Recipilas enpresen artean banatzen da. Bateriak, ordenadoreak eta horrelakoak Recipilasera eta beste guztia Indumentalera.

ETORKIZUNA

Gerora begira, “eraikinak egitean edo bestelako obretatik sortzen den zaborrari irtenbidea eta aprobetxamendua ematea nahi du gure Mankomunitateak, eta gainera, halaxe agintzen du Europako legeak”. Horrez gain, aipatu ditugun birziklapen motez gain, hondakin likidoak, lurzoru kutsatuak eta industri hondakinak ere tratatzen ditu Mankomunitateak.

Horixe da, beraz, etorkizuna: ahalik eta zabor gutxien sortzea eta sortzen den zaborra ahalik eta gehien aprobetxatzea. Zaborretik gizakiak behar-beharrezkoak dituen lehengaiak ateratzen dira. Orain arte, Naturatik lortzen genituen; baina, Natura agortzen eta itotzen ari gara, beraz, beharrezkoa dugu bide hau segitzea; beharrezkoa, gizakiak bizirik iraungo badu. ■

Ubane Madera

EDUKINONTZIEN ERABILERA EGOKIRAKO GOMENDIOAK

BERDEETAN: Beira.

URDINETAN: Papera eta kartoia.

Pilak: mota guztietakoak.

HORIETAN: **Plastikoak:** detergente, ur-botilak, kosmetiko poteak, olio poteak, yogurt poteak, poliespanezko erretiluak (txorizo eta antzekoen bandejak).

Brik-ontziak: esne-kajak, ardo-kajak.

Metalezkoak: errefreskagarri-edariak, kontserba-latak...

*Plastikozko poltsak ere bota daitezke, baina zabalik edo hutsik.

*Tapoiak eta botilak banaturik bota.

*Poteak hutsik bota behar dira.

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ITSASO MALLAVIABARRENA (SASKIBALOI JOKALARIA)

“Emakumeen kirola mit

1980ko abenduaren 14an jaio zen Itsaso Mallaviabarrena, eta metro eta laurogei zentimetroko garaiera du. Betidanik izan du gustuko saskibaloian jokatzea, eta Almen ikastolako taldean saskiratu zituen lehenengo baloiak. Gasteizko Araba Vital taldean ere jokatu zuen, eta orain Ameriketara dihardu, Massachusettsen, Umas Lowell River Hawks taldean. Gehiegi entrenatzen dutela iruditzen zaio berari, baina gustura asko dabil.

— Noiz joan zinen EEB-Betara eta zerk bultzatuta?

— 1997ko azaroaren 14an etorri nintzen Ameriketara. Gehien bat ingelesa ikasteko helburuarekin, baina Ameriketara etortzeko ametsa betidanik izan nuen. Horrez gain, beste kultura bat eta jende berria ezagutzeko eta denboraldi batean etxetik urruti egoteko gogoia nuen.

— Arrasate utzi eta horra joatean, zer egin zaizu zailena?

— Gehien bat lagunerekin eta familiaren falta sumatzen dut, baina baita gure hizkuntzarena, etxeko janariarena, jurgena eta horko jendearena ere.

— Noiztik jokatzeko saskibaloian?

— Lehenengo Almenen hasi nintzen, bederatzi bat urte nituela. Gero Arrasateko saskibaloian jokatu nuen urtebetez, eta Ameriketara etorri aurreko azken hiru urteetan Araba Vital taldean, Gasteizen.

— Zein taldetan jokatzeko duzu orain?

— Orain unibertsitateko taldean jokatzeko dut. Umas Lowell River Hawks du izena taldeak.

— Azaldu guk ulertzeko moduan

EEB-Betako eskola mailako saskibaloia nola jokatzen da?

— Saskibaloia eta beste edozein kirol oso garrantzitsuak dira Ameriketara. Unibertsitateek diru laguntzak, beka eta era guztietako laguntzak ematen dituzte bertara joan, ikasi eta jokatzeko. Han tratatu berezi samarra jasotzen da irakasleengandik,

klasera faltatuz gero etab. Kirola oso garrantzitsua da hemen.

Kirolen batean aritzen dena maila handiago batean jartzen dute, eta gizartearen hobeto ikusita dago.

— Horrenbesteko



“Egunero entrenatzen dugu.

Ez dugu jai egunik izaten, edo agian bi edo hiru hilean”

antilenaren mailan dago”

garrantzia du saskibaloiak?

— Bai. Saskibaloia kirol garrantzitsuenetakoa bat da.

Unibertsitatean edo maila handiagoan saskibaloian jokatuz gero, normalean dena ordaintzen digute. Oso tratua ona jasotzen da.

— Saskiratzailerik onena zara zure taldean.

— Ez. Hona etorri eta lehenengo urtean norbaitek ez duela balio ikusten badute, ez diote jokatzeko aukerarik ematen.

Nik suertea izan dut eta asko jokatu dut. Partida guztietan jokatu dut. Baina, puntu asko sartu dudana arren, jokalaririk hobekien daude nire taldean. Hala ere, oso gustura nago egin dudanaekin.

— Astean zenbatero entrenatzen duzu?

— Egunero entrenatzen dugu. Goizeko seietan jaikitzen gara, entrenatzeko, eta

arratsaldetan, berriz, gimnasia joaten gara. Denboraldia hasi aurretik eta gabonetako oporretan egunean bi aldiz, eta bestela pesak jaso, korrika egin edo horrelakotan ibiltzen gara. Beti dago zerbait. Opor egunik ez dugu izaten, edo agian bi edo hiru hilean. Denboraldian zehar egunero entrenatzen dugu eta partidaren biharamunean, batzuetan jai ematen digute. Nire ustez larregi da, eta entrenatzaileari ere esaten diot, baina brometan ari naizela uste du.

— Erraza da ikasketak eta saskibaloia uztartzea?

— Oso erraza da biak bateratzea. Saskibaloia jokalarion eskolen arabera antolatzen dute, denok entrenatu ahal dugun orduetan jartzen dute. Eta partida bategatik eskola galdu behar badugu, agiria egiten digute eta maisuari ez

dio axola izaten.

— Nolako da emakumezkoen kirolaren egoera EEBBetan?

— Emakumeen egoera oso ona da. Eskola askotan mutilena baino hobea, eta kirolaren arabera, oraindik hobea. Nire ustez ez dago desberdintasunik.

— Baduzu prototipo edo idolorik saskibaloian?

— Sekula ez dut idolorik izan. Eta orain ere ez.

— Eta ikasketak? Zer ikasten duzu?

— Fisioterapia ikasten ari naiz. Ez dakit honetan jarraituko dudana edo beste zerbait egiten bukatuko dudana, baina nire asmoa hori da.

— Gasteizen ere ibili zinen saskibaloian jokatzen.

— Gasteizen oso urte onak

izan nituen. Oso lagun onak egin nituen, asko ikasi nuen saskibaloiaz, baina betidanik izan dut Ameriketara etortzeko nahia. Orduan, aukera sortu bezain laster, hona etorri nintzen.

— Zein beste zaletasun duzu?

— Denetarik egitea gustatzen zait. Kirol guztiak gustatzen zaizkit. Modaren mundua ere asko gustatzen zait, eta gainontzerakoan jende guztiaren antzera: lagunekin irten, musika entzun...

— Herriminik baduzu? Zeren falta antzematen duzu gehien?

— Herrimin handia dut. Oso ondo nago hemen, baina Arrasate eta Euskal Herria modurik ez dago. Gehien bat lagunak, familiaren eta parrandaren falta sumatzen dut. ■

Hemen zergatik ez?


Laster

Ostantz@arrasate.com

CIBERCAFE

Kostua, zure kontsumizioa

Zer duzu, bada?



Baloia galdu duzu? ala, gola sartu dizute? Zer gertatzen zaizu bada, atezain?

Berak ere ez daki. Buruan aska eta aska egiten dabil!

PARTIDA BERTAN BEHERA

Dribling eta Koka Juniors Basati taldeek larunbat arratsaldean zuten norgehiagoka ez zuten jokatu. Dirudenez, Dribling taldeko kide batek Salamancan hileta elizkizuna zuen eta talde osoak bat egin zuen berarekin. Gauzak horrela, partida bertan behera gel-

dituzen. Baina Zaldibarko txapelketako antolakuntzak ezin izan zuen, astelehenero egin ohi duen bileran, partida ez jokatzeari aurri hartu eta partida atzeratzea erabaki du, besterik barik.

Oraingoan aitzakiak balio izan du eta ez du inork jokatu barik punturik lortuko.

Kontuak kontu, norgehia-

goka hori zain izango dute biek ere.

BAT ETA BEDERATZI

Komando Alpargat-DA Iriztu eta Borrock & Roll-AKTA partidak emaitza berarekin amaitu ziren, 1 eta 9. Iriztu eta AKTA izan ziren gainera, 19. jardunaldian gol gehien sartu zuten taldeak, Potroak taldearekin

batera.

Hauek ere 5 eta 9 irabazi zieten Makaikoei.

Bigarren talde goleatzailea Aldibi izan zen, 8 eta 1 irabazi baitzion Sas T taldeari.

AZKEN AFARIA

Hasi dira dagoeneko final ondorengo afaria prestatzen eta sekulakoa espero da. Adi!



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

- Aldibi 8 - Sas T 1
 Betrayer 2 - Fraguél Gol 4
 Komando Alpargat 1 - DA Iriztu 9
 Irati STS 3 - Saukelu Scream 2
 You Know 4 - Ume Zikinak 3
 Kobate 3 - Etxe Mobil 5
 Goma 2 3 - Orlando Piratas 5

B taldea

- Borrock & Roll 1 - AKTA 9
 Kamasutra 6 - IKP 5
 Dribling - KJ Basati
 Serengeti 3 - Aurrera Bolie 4
 Etxerat Tab. 2 - Txeyenex 1
 Makanudos 3 - Leya 4
 Branka Tab. 3 - Alai Gozokiak 3
 Makai 5 - Potroak 9

A taldea	PARTIDAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
You Know	19	15	1	3	109	62	31
Orlando	19	14	2	3	108	57	30
K. Alpargat	19	13	3	3	76	63	29
Kanpazar Harrobia	19	13	2	4	71	47	28
AT Lokala	19	13	1	5	86	54	27
Irati STS	19	12	1	6	106	70	25
AC Surkos	19	11	3	5	88	59	25
DA Iristu	19	10	4	5	78	76	24
Xhasss Ugar.	19	11	1	7	101	79	23
Ume zikinak	19	10	3	6	97	63	23
Betrayer	19	11	1	7	76	57	23
Sau. Scream	19	10	3	6	67	51	23
Fraguel Gol	19	11	0	8	80	81	22
Goma 2	19	11	0	8	79	61	22
Kobate DKB	19	10	1	8	83	64	21
Girandilla Con.	19	5	0	14	54	158	10
Etxe Mobil	19	4	1	14	56	87	9
Atxanta el Ret.	19	2	2	15	33	119	6
Totem	19	3	0	16	18	39	6
Sokoakoak	19	2	1	16	23	51	5
Bar Nuevo	19	1	0	18	21	93	2
Lontxo Tab.	19	0	0	19	0	19	0

B taldea	PARTIDAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
Timoftol SMD	19	15	2	2	115	50	32
Dribling	18	5	1	2	88	40	31
Kamasutra	19	13	2	4	78	50	28
Branka Taberna	19	12	3	4	132	82	27
IKP	19	13	1	5	102	70	27
Aldibi	19	12	1	6	99	72	25
Etxerat Tab.	19	10	4	5	89	69	24
Garaje Oscar	19	8	5	6	79	63	21
KJ Basati	18	10	0	8	99	97	20
Txeyenex	18	9	2	7	74	76	20
Aurrera Bolie	19	9	2	8	55	65	20
Serengeti	19	9	2	8	55	62	20
Potroak	19	8	3	8	63	59	19
AKTA	19	8	1	10	79	65	17
Leya	18	7	2	9	61	70	16
Borrock & Roll	19	5	2	12	72	105	12
Makanudos	19	5	1	13	72	105	11
Alai Gozokiak	19	3	4	12	53	85	10
EPEH	19	4	1	14	43	55	9
Makai	19	3	2	14	66	145	8
KK Jauriaritzari	19	4	0	15	29	33	8
Sas T	19	3	1	15	53	107	7

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 20. jardunaldia

Iarunbata, 8

Zaldibar	Epailea
08:50 KJ Basati - Borroch & Roll (Saukelu Scream)	
10:00 Betrayer - Saukelu Scream (Borroch & Roll)	
11:00 DKB Kobate - AC Surkos (Betrayer)	
12:00 Goma 2 - AT Lokala (AC Surkos)	
13:00 Komando Alpargat - Etxe Mobil (AT Lokala)	
14:00 IKP - Serengeti (Komando Alpargat)	
15:00 Leya - Dribling (IKP)	
16:00 Makanudos - Txeyenex (Leya)	
17:00 Irati STS - Ume Zikinak (Makanudos)	
18:00 Etxerat Tab. - Alai Gozokiak (Irati STS)	
19:00 Giraldilla Con. - DA Iriztu (Etxerat Tab.)	

Iturripe A	Epailea
15:50 Kanpazar Har. - Orlando Piratas (Petroak)	
17:00 Aldibi - Potrak (Orlando Piratas)	

Iturripen B	Epailea
15:50 Fraguél Gol - Xhasss Ugarte (Garaje Oscar)	
17:00 Garaje Oscar - Makai (Xhasss Ugarte)	

igandea, 9

Zaldibar	Epailea
10:50 Timoftol - Kamasutra (Sas T)	
12:00 Makai - Potroak (Serengeti)	
13:00 Txeyenex - Leya (Branka Tab.)	

Atsedena: You Know, Aurrera Bolie, AKTA



**ARRASATE
KIROLAK**

Erantzuna badakizu, ekarri
osteguna baino lehen
Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen
artean zozketa egingo da
zuzenean Mondrasport saloan,
sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteko erantzuna: Juanito Oiarzabal eta Inurrategi anatak
Galdere: Zertan daso espezializatua TUCKLAN marka?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tel.:

Alebinak domina bila



Zumarragan lehiatuko dira asteburuan.

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko gazteenak, alebinak, Zumarragara joango dira asteburu honetan, Gipuzkoako mutilen alebin mailako txapelketan lehiatuzera.

Arrasateko lau kirolari-
tuko dira Argixaoko pistan.


Lander Errasti altuera jau-
zian eta 150 m.ko hesietan ari-
tuko da. Ander Trojaolak 150
m hesietan egingo du korrika

eta Beñat Barberenak eta Ibai
Torresek pisu jaurtiketan har-
tuko dute parte, 3 kiloko pisua
jaurtiz.

Kirolari gazte hauentzat
iltzedun oinetakoekin aritzea
berria da eta baita tartanaren
gainean korrika egitea ere.

Arrasate Kirolak Atletiko
taldeko kirolariak, bestalde,
Gipuzkoako Infantil mailako
eta Taldekako txapelketak
prestatzen ari dira. Bi hauek
Ordizian eta Donostian joka-
tuko dira apirilaren 15ean,
hurrenez hurren. Donostiako
txapelketan lortutakoaren ara-
bera, Iruñean izango dira mon-
dragoetarrek Euskal Herriko
taldekako txapelketa absolu-
tuetan maiatzaren 6an.

ESKUBALOIA Hala ere, irabazi



Arrasate Almenek
sekulako partida
jokatu zuen Itu-
rripen. Aierruren

aurka eta epaileen aurka aritu
ziren. Arrasateko taldeko joka-
lari asko bi minuturako kale-
ratu zituen eta une batean herri-
ko taldea hiru jokalarik eta ate-
zainarekin ere aritu zen. Aie-
rruk ez zuen epailearen lagun-
tza aprobetxatzen jakin. Parti-
da 26-23 amaitu zen arrasate-
arren alde. Aste honetan Arra-
teren aurka jokatuko dute.

aldea zuten arrasatearrek eta
atsedenaldira 58 eta 40 iritsi
ziren. Aste honetan igotzeko
garrantzitsua da irabaztea Cala-
horrari.

TXIRRINDULARITZA Azkarrenak



Jon Lete Arra-
sate Kirolak tal-
dekoa laugarren
izan zen Elgoibarren
joan den asteburuan 10 km.ko
ibilbidean. Bera izan zen Dor-
letako Ama Txirrindulari Elkar-
teko azkarrena. Bigarren urte-
ko kadeteetako JMA taldeko
Aitor Elorza, bederatzigarren
izan zen Hesperren proban eta
Eskolako hirugarrena lehen
urteko kadeteetako Jon Racio-
nero izan zen. 15. helmugara-
tu zen Urretxun.

Aste honetan Elgoibarrera
eta Zegamara joango dira JMA
taldekoak eta Arrasate Kirolak
taldekoek, berriz, Aretxabale-
tan izango dute lasterketa.
Larunbatean, 16:30etan, indus-
trialdean.

SASKIBALOIA Jipoi ederra



Aurreko hiru parti-
dak galdu egin
ditu Kenci Arra-
satek baina Bara-
kaldoko Paules Prycari 102 eta
75 irabazi zion. Igoera aldiko
bigarren itzuliko lehen partida
izan zen larunbatekoa. Zortzi-
garren minutuan 9 puntuko

Txakur leren lasterketa, Gorlan

Domekan jokatuko da Gorlan
Txakur Leren Txapelketa. Zaz-
pigarren urtez jokatuko da pro-
ba hau Gorlako maldetan eta aur-
ten, Aretxabalekako gazte batek
ere hartuko du parte. Itoiz Armen-
dariz da bera eta hernaniar bat,
legazpiar bat, ermuar bat eta
oñatiar bat, Iñaki Muñoz, izan-
go ditu lehian, euskaldunen arten.

Dena dela, Gorlan iazko eta
azken hiru urtetako irabazlea ere
egongo da: Goyo del Real,
madrildarra.

Bergarako Mushing elkar-
teko kideek adierazi dutenez "aur-
ten 50 parte hartzaile arituko dira
txakur lerekin eta inoiz baino tx-
akur gehiago elkartuko dira".

Parte hartzaileek bi minu-
tu tartearrekin ekingo diote pro-
bari eta txakur kopuruaren ara-
bera lau maila bereiztuko dira: C
mailan, 2-4 txakur, B mailan,
4-6 txakur eta A mailan sei tx-
akur.

Proba goizeko 11:00etan
hasiko da.



Beisbola: beste kirol aukera bat

Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoez denetik egiten dutela eta orain kirol amerikarrak ere egiten dituzte, beisbolearen aurrera aurrekiroleko neska-mutikoez. Beno, egia esan, joan den asteburuan ekin zioten horri. Baina nola jokatzeko da EEBBetan horrenbeste maitatzen duten kirol honetan?

- Jokalari kopurua partida bakoitzean aldatu egiten da; haur kopuru handiena duen taldearen kopurua mantenduko da; beste taldean gutxiago badira, batzuek bi aldiz bateatzeko aukera izango dute.
- Base kopurua laukoa izango da gutxienez.
- Pilota jotzeko, teeball ize-

neko euskarri berezi batean jartzen da pilota, jaurtita baino errazagoa da eta horrela.

PILOTA JO ONDOREN

Jarritako eremua gaindituta, bateatzailea korrikalari bihurtzen da eta basez base ahal duen urrutien joaten saiatu behar du.

Bitartean beste taldekoek pilota hartu eta basea ikutuz, korrikalariari bidea moztu saiaturiko dira. Korrikalariak ezingo du bidean atzera egin eta bi baseen artean geratu balitz, kanporatu egingo dute.

- Pilota jaurti ondoren besteak airean hartuko balu, kanporatu egingo dute bateatzailea.



PUNTUAK

Talde bakoitzak ematen duen bira kopurua zenbatuko da. Jokalari guztiek bateatu ondoren, egin beharrak trukatu egin-

go dituzte, hau da, bateatzaileak hartzaile lanetan hasiko dira eta hartzaileak bateatzaile lanetan.

Asteburuko hitzorduak Apirilak 8, larunbata

AURREKIROLA

BEISBOLA

- Musakola
- 09:30 SFX B - FX C
SFX U/3 - La Merced
 - 10:15 S. Viator B - SFX D
SFX A - SFX U/4
 - 11:00 S. Andres - Erguin
Aramaio - Musakola
 - 11:45 SFX E - S. Viator A

MULTIKIROLA

ERRUGBIA

- Jturripe
- 09:45 Autobusa
 - MUTILAK
 - SFX U - SFX B
SFX A - Erguin
Aramaio

NESKAK

- La Merced - Erguin

Jturripe

- 11:15 Autobusa
- MUTILAK
- S. Viator A - S. Viator B
SFX C - S. Viator C

NESKAK

- S. Viator A - SFX A
SFX U

INFANTILAK

SASKIBALOIA

- M. Lagundia
- MUTILAK
 - 10:00 M. Lagundia - Arrasate A

S. Viator

- 11:30 S. Viator - Arrasate B

NESKAK

- S. Viator (atsedena)

FUTBOLA

La Merced

NESKAK

- 09:30 Aranzadi - La Merced

MUTILAK

- 09:00 SFX - La Merced



Aerobikeko infantil taldea.



San Viator saskibaloia taldea.

XIII. Arrasate Literatura lehiaketetako finala

AED elkarteak hilaren 13an banatuko ditu XIII. Arrasate Literatura Lehiaketetako sariak, Udaletxeko pleno aretoan. Orduan bertan emango dira jakitera irabazleen izenak. Finalistak ondokoak dira. Zorte on eta onenak irabaz dezala!

IPUINA

12 urte

Ainhoa Arana, Hasier Eraña

13 urte

Josu Zugasti, Larraitx Kortabarria

14 urte

Itziar Ullibarri-Arana, Itziar Osa

15-16 urte

Iraitx Agirre

17 urtetik aurrera

Aitor Fernandez de Jauregi (Eskoriatza), Eider Amondarain, Jon Aiastui (Oñati)

POESIA

14 urte arte

Idurre Osa, Aiora Padilla (Aretxabaleta), Leire Errasti (Eskoriatza)

15-16 urte

Zuriñe Lasa, Edurne Elkoro

17 urtetik aurrera



97ko lehiaketako irabazleak.

Nerea Makazaga, Manex Agirre (Aramaio)

BERTSO-PAPERAK

14 urte arte

Idurre Osa, Maitane Mazmela

15-16 urte

Janire Bolinaga, Jokin Labayen

17 urtetik aurrera

Ander Lizarralde (Oñati)

KOMIKIA

14 urte arte

Oscar Rebanal (Aretxabaleta), Laida Ocon de las Heras, Leire Feo

15-16 urte

Xabier Sanz, Iban Galan

17 urtetik aurrera

Jon Gonzalez, Mikel Arroia-be (Aretxabaleta)

EUSKALKI GRABAZIOAK

Alex Aginagalde (Aramaio), Arantzazu Zabala (Aramaio)

IRRATI ERREPORTAJEAK

17 urtera arte

Deiane Lage, Maitane Muñoz


17 urtetik aurrera

Alaine Altube eta Miren Igartuak (Aretxabaleta) eta Ainhoa Martinek osatutako taldea

Eskola antzerki jardunaldiak, arrakastatsu

Aste honetan amaitu dira Hezkuntza eta Kultura batzordek antolatu dituzten X. Eskola Antzerkiaren jardunaldiak. Arrasateko ikastetxe guztiek eta Almen ikastolak hartu dute parte.


Egitasmoaren helburuak ondokoak ziren: ikasleengan antzerkirako zaletasuna indartzea, antzerkia ikustera ohitzea, eta haren alderdi hezigarri eta jostagarriak ezagutaraztea eta, itxura denez, ondo lortu dira hirurak, Jose Antonio Barriocanalek, Hezkuntza saileko



Antzerki saio guztiak Amaia antzokian izan ziren.

batzordeburuak, esan digunez: "Esperientzia polita izan da, bai antolatzaileontzat, bai ikasle-irakasleentzat. Ikasleek interes handiarekin hartu dute antzerkia barrutik ikusteko aukera. Datorren urtean errepikatu egingo dugu."

Hiru alditan egin dira jardunaldiak. Martxoan, antzerki emanaldiak izan zituzten. Ondoren, Amaia antzokiaren azpiegiturak ikusi zituzten. Eta hilaren 5ean eta 6an, ikasleek hainbat lan taularatu zituzten, Amaia antzokian.




reef



reef

Girls' Shoes
Fall 2000



ARRASATE
KIROLAK

Kirol bakoitzari
erantzun bat

QUIKSILVER



EMAKUMEON TXOKOA

Autoestima ikastaroa

Norberaren galtasun eta ballabide pertsonalak garatzeko

- Apirilaren 12an hasi eta ekainaren 14a arte.
- Asteazkenetan arratsaldeko 17:30 - 19:30.
- Emalea: Pepa Boj6.
- Matrikula, doan.

Autodefentsa ikastaroa

Autoestima eta autodefentsa psikiko eta fisikorako teknikak geureganatzeko

- Maiatzaren 13a ostirala, arratsaldeko 13:00. Zapatua goiz eta arratsaldeko.
- Ordutegia: goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.
- Emalea: Maite Monroy.
- Matrikula, doan.

Argazki lehiaketa

- Gaia: "Gazteak eta arrazakeria".
- Emakumeen ikuspuntua/mundua hobekien baloratzen duen sari berezia.
- Oinarriak gazte bulegoan.
- Epea: Urriak 11.

Komiki ez sexisten lehiaketa

- Sariak: Komiki onena, emakume egilea, aukera berdintasuna, gazte saria eta euskera saria
- Oinarriak gazte bulegoan
- Epea: uztailak 21

Hitzaldia - sexologia liburu gidaren aurkezpena

- Monterron Liburutegiak eta Sexologia Zerbitzuak antolatuta.
- Hitzaldia: Luis Elberdin sexologoarekin.
- Monterronen apirilaren 13an, osteguna, arratsaldeko 18:30ean.
- Sexologia liburu gidaren aurkezpena.

Argibideak: Udaleko Emakume Sailean
Telefonoak: 943 79 09 00
943 79 41 39



Argentinako abesbatza bat gurean izango dugu asteburuan



Goikobaluk itzuli nahi die argentinareei hantxe jasotako harrera ona.

Bisita dugu asteburu honetan. Goikobaluk gonbidatuta, Argentinako Cordoba hiriko Unibertsitateko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolako abesbatza dator. Odontologiako 50 ikaslek osatzen dute abesbatza, eta Arrasaten izango ditugu zapatuan eta domekan. Kontzertu sorta bat eskaini behar dute European eta lehenengo geldialdia Mondragoan egingo dute.

Goikobalu abesbatzak Argentinako Cordobara egin zuen bisitaren itzulera da honako hau. Arrasatearrak duela bi urte izan ziren Argentinan, eta Maribel Hernandezek, Goikobaluko zuzendariak, gogoan du oraindik argentinarek egin zieten harrera beroa, eta arrasatearrek beste hainbesterekin erantzutea da bere nahia.

ALKATETZAN HARRERA
Cordobako 50 gazteak hila-
ren 8an iritsiko dira. Hurren-
go eguna izango da handie-

na: eguerdiko 12:30etan alka-
tearen ongi etorria izango
dute, Udaletxe aurrean; ondo-
ren herriko ohitura errotue-
netariko bat ezagut dezaten,
tabernarik taberna bueltatxo
bat egingo dute. Gero, Bedo-
ñan bazkalduko dute, mendia
bistan dutela.


KANTU FESTA

Eta 20:00etan izango da ema-
naldia, Amaia antzokian. Goi-
kobaluk arratsalde ahaztezi-
na prestatu nahi izan du eta
laguntzaileak ere gonbidatu
ditu: Natalio Maiztegi dan-
tzariak eta Alioli umore tal-
deak tangoa dantzatuko dute.
Ondoren, Goikobalukoek
abesti batzuk kantatuko dituz-
te, eta orduan etorriko da
argentinarren txanda. Hama-
best bat abesti eskainiko dituz-
te, elizakoak edo Latinoa-
meriketako herrikoiak gehie-
nak. Sarrerak, 500 pezetan,
Amaian edo Goikobaluko
edozeini eskatuta izango ditu-
zue.

LUIS ELBERDIN (SEXOLOGOA)

“Sexuan ere, jakintzak aske egiten gaitu”

Orain dela 49 urte jaio zen Oretetan Luis Elberdin. Psikologian doktoratu ondoren, sexologian espezializatu zen. Gaur egun, Oretetako Askabide sexu osasunerako zentroan egiten du lan sexologo moduan; gainera, hainbat komunikabidetan kolaboratzaile lanetan dihardu, eta liburuak ere idatzi ditu. Datorren eguenean, bere azken liburuaren eta Arrasateko sexologia zerbitzuak prestatu duen gidaren aurkezpen hitzaldia emango du Monterronen.



➤ — **Nolakoa da gaurko gazteen sexualitatea beste garai batzuetakoen aldean?**

— Gaurko gazteak askoz lehenago hasten dira, 14-15 bat urterekin, joko gehiago egiten dute... oro har, euren gurasoek izan zutena baino sexualitate alaiagoa dute. Alde horretatik, gauzak aldatu egin dira; hala ere, gaurko gazteek ez dute lehengoek baino informazio gehiago jasotzen.

— **Zein zalantza dituzte gazteek?**

— Mitoek eragin handia dute oraindik. Adibidez, askok uste du sexua egiteko aditua edo esperientziaduna izan beharra dagoela, batez ere mutilek. Plazerra lortzea euren eginbeharra dela pentsatzen dute mutilek, eta horrek izugarritzko buruhausteak ematen dizkie.

— **Eta neskei?**

— Oso hedatua dago ondoko mitoak: emakumeak sarketaren bidez lortu behar duela orgasmoa. Hori erabat faltsua da; gehien-gehienek klitorisaren estimulazioaren bidez lortzen dute plazerra, ez sarketaren bidez. Beste

mito hedatu bat: bikoteak aldi berean lortu behar duela orgasmoa. Horrek sekulako malabarismoak egitera eramaten ditu bikoteak.

— **Zergatik da zaila mitoak desagitea?**

— Gizartean oso sustraituta daudelako. Filmeen eragina hartu behar dugu kontuan: bizitzako arlo guztietan, ikusi eta ikasi egiten dugu, sexuan izan ezik. Sexuan, ez dakigu besteek zer egiten duten. Erreferentzia bakarra filmak dira. Han agertzen dena errepikatzen saiatzen gara eta hori fantasia hutsa denez, frustrazioa sortzen da. Filmak gezurra direla pentsatu ordez, errudun sentitzen gara eta sexuan desastre hutsa garelako pentsatzen dugu.

— **Horren aurka zeintzuk dira armak?**

— Informazioa. Hortxe gaude sexologoak informazioa eta esperientziak biltzen eta zabaltzen. Baten batek esan zuen, jakintzak aske egingo gaituela, eta sexuan ere hori bera gertatzen da.

“Mutil askok sexua egiteko aditua edo esperientziaduna izan beharra dagoela uste du”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzak, DBHko 2.zikloko eta DBH ondoko ikasleek atzerrian alemana, frantsesa eta ingelesa ikasteko kurtsueta-ko plazaen deialdia egin du. Epea: apirilak 10.

■ LANA

• Euskal Parlamenturako itzul-tzailea eta informatikaria behar dira. Epea: apirilak 10.

• Elgetako Udalak, administraria, kirol teknikaria, eta kultura, euskara eta turismo teknikariak behar ditu. Epea: apirilak 12.

■ IKASTAROAK

• Udaleko Emakume Sailak antolatua, autoestima ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik. Asteazketan, 5:30etatik 7:30etara, apirilaren 11n hasi eta ekainaren 11ra arte.

• EHU-UPVk urtero antolatu-tzen dituen Udako Ikastaroak. Izen emate epea: maiatzak 3an hasi eta plazak bete arte.

■ LEHIAKETAK

• Basauriko Euskarabila Elkar-teak antolatuta, ipuin erotikoen 5. Lehiaketa. Euskaraz idatzitako lanak, 2 eta 6 orrialde bitartean. Epea: apirilak 17.

• Zumarragako Udalak, bertako festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 12.

■ UDAKO EKINTZAK

• Diputazioak antolatutako udako egonaldiak, 14-17 urte artekoentzat. Ingeles edo frantses egonaldiak; ur ekintzak Almerian, Valentzian; kirol ekintzak Bur-gosen, Hoskan; ingurugiro ekintzak Avilan, hipika, zeharkaldia bizikletaz... Izena emateko epea: apirilak 18-maiatzak 10.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

asteko filma



La Milla Verde

(The Green Mile). Drama. EEBB, 1999.

Zuzendaria: Frank Darabont.

Aktoreak: Tom Hanks, David Morse, Bonnie Hunt.

HARIA

Paul Edgecomb dugu pelikulako protagonista eta kontatzailea. Presondegi batean heriotz zigorra zuten zaintzaile izana da Paul, eta orain, zahartzaroan, John Coffey izeneko preso batekin izandako bizipen harrigarriak kontatzen dizkio lagun bati. Izan ere, Coffeyri esker mirarrietan sinisten ikasi zuen Paulek.

KRITIKA

Hiru ordutik gora irauten du film honek, baina bai ondo aprobetxatutako denbora! *Cadena Perpetua* bere azken filmak lantzen zituen gaiak berrikusten ditu hemen zuzendaria, baina eskertzeko moduko aberastasun eta konplexutasunez. Darabont ez datorkigu originaltasun handiko istorio batekin, baina ondo sentiarazten du. Zine klasikoa, ona, gozarazten dena, hiru ordu luze horietako minutu bakoitzean.

irakurle eta entzule

Iturria: Eya

diskoak

ETZAKIT

Goiz edo Noiz? (Elkarlanean)



Hamabi abesti eskaintzen dizkigu Etzakit laukoteak bere bigarren diskoan. Trikitixa da euren jatorrizko musika iturria, eta diskoan iturri horri ez diotela muzin egiten adierazten digute, ia abesti guztiek baitute halako trikitixa ikutu bat. Kanta batzuk euren musika sustarrei egindako omenaldia dira (*Goiz edo Noiz, Egina, Landakanda*), baina besteetan, rock edo pop doinuen eraginez antzaldatuta ageri zaigu trikitixa, oso emaitza onekin (*Gaur, Ene Kuttun, Denbora, Bihotz Zaitua*). Kalitate gorabeherak dituen arren, aintzat hartzeko moduko diskoa dugu *Goiz edo Noiz*. Eta abestien letrei begiradaxo bat ematea ere ez da alferrikakoa izango, beti dago eta erreibindikazio edo kritika sozial ikutu bat.

Hamabi abesti eskaintzen dizkigu Etzakit laukoteak bere bigarren diskoan. Trikitixa da euren jatorrizko musika iturria, eta diskoan iturri horri ez diotela muzin egiten adierazten digute, ia abesti guztiek baitute halako trikitixa ikutu bat. Kanta batzuk euren musika sustarrei egindako omenaldia dira (*Goiz edo Noiz, Egina, Landakanda*), baina besteetan, rock edo pop doinuen eraginez antzaldatuta ageri zaigu trikitixa, oso emaitza onekin (*Gaur, Ene Kuttun, Denbora, Bihotz Zaitua*). Kalitate gorabeherak dituen arren, aintzat hartzeko moduko diskoa dugu *Goiz edo Noiz*. Eta abestien letrei begiradaxo bat ematea ere ez da alferrikakoa izango, beti dago eta erreibindikazio edo kritika sozial ikutu bat.

liburuak

GERTURIK DAUKAGU ODOLA

Joxean Sagastizabal

Pamiela Tamaina Ttikia. 85 orr., pta



“Esan beharrik ez dago, lagun mai-teok, euskal odola, jatorra, garbia, purua, RH negatiboa dela. Positiboak ez du ostiarik euskalduntzen”. Esaldi honek ematen du arrasto zenbait

liburu honen nondik-norakoaz. Sagastizabalek gaur egungo Euskadiren hainbat mito eta sinbolo hartzen ditu —RH negatiboa, Ajuria Enea, Ertzaintza, Osakidetza, Eusko Gudariak Gara, euskalduntzea...— eta barre egin nahi du haien kontura.

Hemen, ordea, ez du asmatu, Kutsidazu Bidea Ixabel liburuan bezala. Hahemenka baditu kolpe batzuk, baina ez da iristen Asisko Urmenetaren ilustrazioen mailara.

asteburuan zer

kontzertuak

TANGO ETA IRAULTZA

Aspaldiko musika estiloek bizirik eta osasun bikainez diraude, eta horren froga Oñatin izango dugu, han eskainiko baitu kontzertua La Chicana tango taldeak. Tango antzinako kontu aspergarria dela uste baduzue, La Chicanak erakutsiko dizue zein oker zaudeten. Izan ere, euren uestez, tangoak iraultza eta ezezkotasun izpiritua du esentzia, eta horrek gaur egungo rockaren ahaide egiten du tangoa, 40ko hamarkadatik aurrera munduan zehar hedatu ziren orkestra moldeena baino. Izpiritu hauskorra du, beraz, La Chicanak. Cayengue izeneko erritmoak eta tangoa hasi zeneko ukitu melodramatikoa oso gustuko dituzte musikari argentinar



hauek. Egia ala gezurra den, Oñatiko Gaztelekuan ikusi ahal izango duzue, eguakitzean, 22:30. Han izango dira Dolores Sola abeslaria, Acho Estol gitarrajolea, Nicolas Capsitski bandoneoilaria eta Juan Valverde, txirulari eta biolinjolea.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Apirilak 14: Jon Auer + Skyward

Apirilak 15: Doctor Deseo

Egun bakoitzerako **3** sarrera
zozketatzen ditugu.

Izen-deiturak:

Tel.: Eguna:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31



Ongi etorri
Bora berria



Seat Udalaitz

Musakola z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25



Programazioa

OSTIRALA, 7

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Alberto Elorza, Zelaizabal
jaketxeko sukaldaria.
- 13:50 **Guganda** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko
albisterik garrantzitsue-
nak, Eneko Azkaratek
aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

LARUNBATA, 8

- 13:30 Asteko saioen errepika:
**Jolasplast, Gatza eta
Berakatz, Hamaika
Magazin, Guganda,
Soinuz Blai, Astebete.**

IGANDEA, 9

- 13:30 Asteko saioen errepika:
**Jolasplast, Gatza eta
Berakatz, Hamaika
Magazin, Guganda,
Soinuz Blai, Astebete.**

ASTELEHENA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Eduarne Izarzelaia,
Dukierna jaketxeko
sukaldaria.
- 13:50 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).

ASTEARTEA, 11

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Aitor Aizpurua, Iturritxo
jaketxeko sukaldaria.
- 13:50 **Mondrasport.**
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.**
Garapen sexuala
aztertuko da, alegria
izeneko lorez hitz egin,
Bruegel margolariaren
mundua erakutsi eta
Thailandiara eramango
gaituzte bidaian.



Arantazu Lagunilla.

- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).

ASTEAZKENA, 12

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Jose Ignacio Lasa,
Bergarako batzokiko
sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).

OSTEGUNA, 13

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Mari Karmen Telleria,
Garoa jaketxeko
sukaldaria.
- 13:50 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Zortziko Txikian.** Joan
den larunbatean San
Prudentzio bertso
sariaren final erdia jokatu
zen Aramaion, bertsolari

Gatza eta Berakatz

PLATERAK: Okelak

NOIZ

PLATERA

Astelehena 10	Bildots hankatxoak.
Astearte 11	Eper konfitatua.
Asteazkena 12	Entrekot Kabrales gaztaiarekin.
Osteguna 13	Mingaina saltsan.
Ostirala 14	Mingain errollotxoak.

gazteen artean. Han
gertatutakoaren berri
izango dugu.

- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.**
Miren Gonzalezekin.



Miren Gonzalez.

OSTIRALA, 14

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
Igor Ezpeleta jaketxeko
sukaldaria.
- 13:50 **Guganda** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko
albisterik nabarmenenak,
Eneko Azkaratek
aurkeztuta.



Eneko Azkarate.

- 22:00 **Gatza eta Berakatz**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).


S. Prudentzio saria bertsolaritzan

Zortziko Txikian ostegunean, 21:30

Joan den larunbat iluntzean festa giroa bizi izan zen Aramaion. Inguruko bertsozale asko bildu zen han, San Prudentzio Sariaren erdifinala entzuterat.

Arabako bertsolari gazteak lehiatu ziren, finalerako txoko bat hartu guran. Arrasate Telebistak orduko saioaren pasarterik onenak eskainiko dizkizue Zortziko Txikian saioan.

Azkenean hauek izan ziren lehenengo hirurak. Asier Otamendi izan zen irabazlea (145 puntu); bigarren Oihane



Perea (141 puntu); eta hirugarren Ricardo Gonzalez de Durana (132 puntu). Hirurak finalera pasatuko dira. Han beste hiru lagun izango dituzte zain: Asier Iriondo, Zigor Enbeita eta Nagore Soroa.

Apirilaren 15ean jokatuko da San Prudentzio sariako finala, Gasteizko Florida kultura etxean.

Xehetasun gehiago Anartz Agirrek emango dizkigu Zortziko Txikian.

Bertsozaleok, adi.

Arrasate Irratia

Udal irrattia Arkora



Arrasate Irratia

Asteazken eguerdian hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Arrasate Komunikabideak elkarrekin, aurrerantzean honek har dezan Arrasate Irratiaren gestioa.

Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du.

Hitzarmena alkatetzan sinatu zen. Mahaiaren bueltan, Xabier Zubizarreta alkatea udalaren izenean eta Joxemari Muxika bestetik, Arrasate Komunikabideak ordezkaturik. Alboetan Juan Luis Arexolaleiba Euskara zinegotzia eta Agurtzane Gainzarain, ARKOko kudeatzailea.

Hitzarmenak esaten duenez, Arrasate Irratia Otolara kalera eramango da, ARKOren etxera. Horrekin batera, leku aldatzea aprobetxatuko da irrattia teknologia digitalean jartzeko. Horretarako, hiru milioi pezetako inbertsioa egingo du ARKO. Lehen ez bezala, hemendik aurrera Arrasate Irratiak beste finantziario iturri bat izango du: publizitatea, eta ARKOk eramango du hori.



Juan Luis Arexolaleiba, Xabier Zubizarreta, Joxemari Muxika eta Agurtzane Gainzarain.

Programazioaren ardura ere bere gain hartuko du Arrasateko multimedialak.

Hitzarmenaren arabera, udalak ia 10 milioi jarriko ditu ARKOren esku, irratiaren aurtengo gastuei aurre egiteko. Kopuru horixe jarri izan du aurreko urte-

etan ere irratiaren gastuak estaltzeko.

Sinatzaileak pozik agertu ziren hitzarmena izenpetu eta gero.

Arrasate Irratiaren emisioak oraindik etenda segitzen du, baina itxura guztien arabera maiatzaren hasieran ekingo dio berriz ere programazioari, FMko 107.7an.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Meatzerrekan guztiz berritutako baserria salgai, luxuzkoa. "Aitazpi" izena du baserriak. Tel.: 943 79 70 25.

3. Errentan emateko

• Gela bat alokatzen da ingeleseko eskolak emateko. Tel.: 943 79 54 33.

• Etxebizitza alokagai Zarautzen, ekaina, uztaila eta abuztuan. Erdialdean dago, terraza eguzkitsua eta garajearekin. Tel.: 943 13 03 42.

• Erdiko kalean etxebizitza alokatzen da ikasleentzat. Tel.: 943 79 12 20. Dora.

• 3 logelako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 907 84 86 73. 21:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokagai Torreviejan (Alacant) herrian bertan (Playa del Cura). Tel.: 943 79 32 54.

4. Errentan hartzeko

• Ikasleak etxebizitza bila dabiltsa. Tel.: 616 55 03 18.

• Etxebizitza alokatuko genduke Aramaion. Tel.: 617 99 43 38. 20:00 - 22:00.

5. Etxeak osatzeko

• Gela bat zuretzat San Andresen, pisu konpartitu batean. 21.000 pta hilero + gastuak. Tel.: 943 71 24 00, 226 luzapena (David), 667 48 30 94 (Oskar).

• Mutila behar da etxebizitza osatzeko Makatzenen. Tel.: 943 77 12 42. 8:00-15:00.

• Logela bat alokagai, Ferixalekuan. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 943 79 32 28. Mikel.

• Bi gela alokagai Erguin kalean. Tel.: 639 58 93 66.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eburne.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 18 70.

• Ferrerías 42an 25 m²ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atenditu. Tel.: 626 37 93 66.

LANA

17. Eskaintza

• Medikuntzan lizentziatua gaixo nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 08 21.

• Enpresa zientzietan lizentziatua edozein lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

• 16 urteko mutila, Mondragoeko tabernaren batean asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 943 77 01 83. Gauetz deitu.

• Enpresa edo tailer batean lan egingo nuke. Tel.: 943 79 37 68. Idoia.

• Arrasaten gazte arduraduna eskaintzen da tabernan edo antzeko nonbaiten lan egiteko goizez edo gauetz. Tel.: 943 77 14 32.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar dugu sukaldako lanak egiteko. Tel.: 943 79 58 50. Goizez deitu.

• Sukaldari bat behar da jatetxean. Tel.: 943 79 24 58.

• Sukaldaria behar da asteburuetan Muxibar pizzerian lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 30 urtetik gorakoa eta esperientziaduna. Deitu 20:00etik aurrera. Tel.: 94377 17 48.

• Neska prest Arrasaten arratsaldez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Erizain laguntzaile tituludunak behar ditugu. Tel.: 943 79 72 11. Amaia.

• Emakumea behar da orduka lan egiteko. Tel.: 943 79 43 85. Rosa.

19:00etatik aurrera.

• Sukaldaria eta zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Ahal bada esperientziaduna. Tel.: 943 71 43 45.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

21. Eskaerak

• DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 96 69.

• Alemanierazko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 20 15. Maite.

• Polakoa ikasi nahiko nuke. Tel.: 666 33 096. Sergio. Gauetz deitu.

• Bi neskak ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

MOTORRA

23. Saldu

• Motorra salgai. Suzuki GS-500 E, karenatua eta faro bikoitza. 25.000 km., aseguru maiztera arte, estrak, oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• Citroën Xsara 2000 vts 16 v, SS-BG salgai. Tel.: 943 79 64 48. Jon.

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

• Seat Toledo Vs auto berria salgai. Gris metalizatua eta SS-7500-B4 matrikuladuna. Tel.: 943 76 54 19. Raul.

• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Playstation erabili gabea. Prezioa: 15.000. Tel.: 943 79 52 27.

- Peugeot 806, 7 plaza. 2.0 gasolina. Tel.: 607 15 30 70.

DENETARIK

26. Saldu

- Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

- Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

- Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

- Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

- Karro denda berri-berria salgai, bi hilabetez erabilia. Bi ohe, egongelatxoa. Tel.: 943 78 70 74.

- Akuariuma salgai. 100 litrokoa da eta ur filtroa eta termostatoa dauka. Tel.: 943 79 88 30.

- Nikon FM 10 argazki kamera salgai. Egoera onean. Tel.: 600 69 70 15.

- Errepideko bizikleta salgai, 57ko neurrikoa, koadro berria eta 7.020 aluminiozkoa. "Shimano 600". Osagaiak ipinita. 125.000 pta. Tel.: 943 78 00 28.

- Karro denda Inesca (Viena modelo) salgai. Ia berria. Tel.: 943 76 43 80.

27. Erosi

- Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

- Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

- Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

- Arrue markako panpinentzako kotxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

31. Galdu

- Otolara kaleko farola baten ondoran tenazak galdu zitzaizkidan; kirtena gorria da. Tel.: 943 46 53 56.

- Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handikoa

da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

- Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

- Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

- Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

- Martxoaren 10ean koltxoidendako algodoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

- Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

33. Bestelakoak

- Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

- Botatzeko dituzun egurrezko atak jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

32. Aurkitu

- Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

- Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Lurrin eta kosmetika enpresa multinazionalak saltzaileak behar ditu. Taldeko buruak eta komertzialak behar dira. Soldata altuak eta Estatu mailako hedapena. Bitxi eta Gold Field katalogoa zure esku jarriko dugu. Tel.: 670 27 04 96.

- Xabi naiz eta 36 urtetik beherako mutilekin harremanak izan nahi nituzke. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zbk. 20560 Oñati Gipuzkoa. Nire aldetik erabateko zuhurtasuna.




Jan, Tretan

OSTIRALA 7,
ARRATSALDEKO 7RETAN
ZABALDUKO DUGU.

OLARTE, 41
JAI-ZALE ALDAMENEAN
TEL.943712695

Lazkano

SOINU PROFESIONALA
INSTRUMENTUAK • HI-FI / DVD





Aste Santuko ohiturak asko aldatu dira urte-etan zehar. Horren irudi aste honetako argazkia. Egua-kotz Santuan prozesio berezia egiten zen Mondragoen. Hilobi Santua bizkar gainean hartu eta Parrokiatik aterata, San Frantzisko elizara egiten zuen prozesioak. Han San Joanen irudiarekin bat egin eta Maalako etxe txikien bidea hartu ohi zen. Ondoren, Nafarroa Etorbidetik

zehar berriro ere Parrokiaruntz itzultzen zen.

Egun horretan Luistarrek izaten zuten Hilobi Santua eramateko ardura. Ohore handia izaten zen. Horregatik, urte igoralean ezkondu behar zirene artean zintzoenek eramaten zuten. Hilero meza bat eta komunioa izaten zuten Luistarrek. Joaten zenari txartela ematen zioten, kontrol moduan eta horren arabera erabakitzen zen zintzoenen zerrenda. Prozesioa egin ondoren, Acción Católicaan biltzen

ziren merienda egiteko.

Irudiotako argazkia 1953. urtekoa da. Tente daudenetik hasita, ezkerretik eskuinera: Jabier Yarza, Gualberto Gorosabel, Iñaki Agiriano, Pablo Barrena apaiz laguntzailea, Don Justino Uribesalgo apaiza, Santos Zeziaga "Hermoso", Maximo Uribesalgo eta Modesto Barrutia.

Makurtuta daudenetik, berriz, ezkerrekoa Txomin Agirreurreta da eta eskubikoa Lazpita izan litekeelakoan gaude.

Garai hartan jende gaztea bi kongregaziotan biltzen zen: mutilak Luistarren taldean sartzen ziren eta neskek Mariaren Alabak izenekoan. Ezkondu arte izaten zen hori eta, ondoren, bestelako taldeetan sartzen ziren. Luistarrak mende hasieratik ezagunak ziren Mondragoen eta desagertu, berriz, mende erdia pasatuta desagertu ziren.

Berriemaileak: Pablo Barrena eta Iñaki Agiriano.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



Arizmendi

Larrin Plaza, 1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)



Erakusketa aldaketarik...

estilo guztiak!



- Logelak
- Egongelak
- Sofak

GRUPO



Amuebladora Mondragonesa

a eme Interiores
Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

...%20tik %50era bitarteko deskontuak



a eme interiores

Garibai 9. Tel.: 943 79 15 03